



Lapurdum

Euskal ikerketen aldizkaria | Revue d'études basques |
Revista de estudios vascos | Basque studies review

22 | 2021
Numéro XXII

Euskarazko leku-denborazko kasu-marka nagusien jatorriaz zenbait gogoeta

Haritz Monreal Zarraonandia



Édition électronique

URL : <https://journals.openedition.org/lapurdum/4121>

DOI : 10.4000/lapurdum.4121

ISSN : 1965-0655

Éditeur

IKER

Référence électronique

Haritz Monreal Zarraonandia, «Euskarazko leku-denborazko kasu-marka nagusien jatorriaz zenbait gogoeta», *Lapurdum* [Linean], 22 | 2021, Sarean emana---an 01 septembre 2021, kontsultatu 27 août 2023. URL: <http://journals.openedition.org/lapurdum/4121> ; DOI: <https://doi.org/10.4000/lapurdum.4121>

Ce document a été généré automatiquement le 27 août 2023.



Creative Commons - Attribution-NonCommercial-NoDerivatives 4.0 International - CC BY-NC-ND 4.0
<https://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0/>

Euskarazko leku-denborazko kasu-marka nagusien jatorriaz zenbait gogoeta

Haritz Monreal Zarraonandia

NOTE DE L'AUTEUR

Honako lan honetan euskarazko leku-denborazko zenbait kasu-markaren jatorriaz hipotesi berriak proposatuko ditugu. Euskarak historian zehar alboan izan dituen mintzaerek eragin nabarmen eta frogatua izan dute hizkuntzaren hainbat eremutan, eta eragin hori kasu-marketara ere iritsi dela defendatuko dugu. Uste hedatua da hizkuntzaren nukleoan diren elementuetan zaila edo ezinezkoa dela aldamenean dauden hizkuntzek eragitea, baina gure ustez hizkuntzaren morfologiako eremu horretara ere irits daiteke hizkuntzaz kanpoko eragina, bai elementu linguistikoen forman eta erabileran interferentziak sortuta, baina baita mailegatze fenomenoetara iritsita ere. Fenomeno horiek zilegi direla funtsatzeko, kontaktuan diren beste hizkuntza batzuen ebidentziak aurkeztuko ditugu. Esango genuke, bestalde, kasualitatezko homofoniak ez diren antzekotasunak azaltzen direla euskarazko zenbait markaren eta alboko hizkuntzetako morfemen artean, eta iruditzen zaigu antzekotasun horiei ez zaiela merezi duten arreta eman beharbada.

1. Ausazko kasualitateak baino areago?

- ¹ Robert L. Trask hizkuntzalari ospetsuak, duela hogeita bost urte argitara eman zuen *The History of Basque* maisu-lanean, gogor kritikatu zituen euskara beste hizkuntza batzuekin hala moduz konparatuta proposatzen ohi diren hizkuntzen arteko ahaidetasunak, bere ustez gehienetan teoria funsgabeak eta fantasia absurdoak baizik ez direnak. Tankera horretako proposamenak egiten dituzten akademikoei leporatzen zien arruntean ikertzaile talde baten arrimutik kanpo lan egitea eta euren lanek

metodo zientifiko zorrotz baten oinarri sendoa ez izatea. Ikerlari horien huts nabarmenenak izaten ohi dira konparatzen dituzten hizkuntzak nahiz berorien historia ez ezagutzea eta, ahaidetu gura dituzten hizkuntza horietako hitzen arteko erlazioa zalantzazkoa suertatzen denean, ezabaketa, epentesi, metatesi, koaleszentzia edo justifikaziorik gabeko alternantzien babesa baliatzea. Halako metodologia susmagarri bat ilustratzeko, hungarierazko hiztegi bat harturik, esfortzu handirik gabe, berehala aurkitu zituen euskarazko hitz eta egituren baliokideak. Aitortu zuen tranpa txiki batzuk egin behar izan zituela: batetik, hizkuntza biek latinetik mailegaturiko hitzak -*bake*, *balea*, *pare*, *zaku*, *etab.*- balizko harremana funtsatzeko erabiltzea, bestetik, baliokidetasuna oztopatzen zuten morfemak nahierara segmentatu eta komenientziaz kanpoan uztea. Eskura zituen baliabideak errazkeriaz manipulatu ostean, Traski duda sortu zitzaion metodologia azkar horren bitartez ez ote zuen aurkikuntza garrantzitsuren bat egin. Hori ere, noski, ironiaz esan zuen.

- 2 Traskek konparazio sasizientifikoak ilustratzeko eman zituen adibide horien artean, ordea, atentzioa eman dezake iparramerikarrak osaturiko hungariera/euskarako korrelazio batek: kasu-markei dagozkien parekidetasunetan, antza, euskarazko inesiboak hungarieraz -(e)n baliokidea du eta adlatiboak, berriz, -ra baliokidea (cf. Trask 1997: 411-413). Manipulaziorik gabe, korrelazio horiek zuzen eman balitu, aitortu beharko genuke kasualitate bitxia dela, gutxienez. Irudi lezake ausazko kointzidentzia linguistikoak baino zerbait gehiago direla. Halako formen berdintasunak hizkuntzen arteko ahaidetasuna frogatzen dutela esatera menturatzea, ordea, Traskek susmopeko metodologia horri egin zion kritika gordina gogoan, ausarkeria galanta izango litzateke. Idatzi honen egileak ere -hizkuntzalari iparramerikarraren doinu isekariari segida emanez- ez du hungarieraren historiari buruzko jakintza maila egokia izatearen handicap, hizkuntzen arteko harremanaz baieztapen zalantzarriak egiten ibiltzeko; alabaina, desabantaila hori teoria handiak asmatzeko ezin erabili arren, ausartuko gara kasu-marketan dagoen forma horien irudizko parekidetasunari azalpen bat proposatzera.
- 3 Egun baditugu duela hamarkada bi ez geneuzkan baliabideak beste hizkuntza batzuek informazioa jasotzeko. Euskarari dagokionez, urrunago joan gabe, ingelesez argitaratu dira gramatika sendo bi (Hualde, Ortíz de Urbina *et al.* 2003 eta De Rijk 2008), baita euskararen historiari buruzko azken aurrerapenak biltzen dituen ikerlan mardul bi ere (Martín-Areta 2013 eta Gorrotxategi, Igartua & Lakarra 2018). Eskura ditugun iturri horietan agertzen den informazio orokorra baliatuta, hortaz, hungarieraren gramatika nahiz historiaren azaleko irudi zabal bat izatea zilegi dugu¹. Hungariera hizkuntza uralikoa dugu, hizkuntza fino-ugriarren artean, ugriar adarrekoa. Ez da hizkuntza indoeuroparra eta egungo euskararekin alderatuta antzekotasun tipologiko adierazgarriak ditu. Besteak beste, perpauseko elementuak modu nahiko askean konbinatu daitezke, galdegaia edo fokalizatu nahi den informazioa aditzaren aurretik ezartzen delarik. Bestetik, hizkuntza eranskaria da eta, aurrizkiak barik, atzizkiak erabiltzen ditu. Gramatikalizazio prozesuen ondorioz, batzuetan, autonomoak ziren postposizioak jatorrizko eduki semantikoa galdu, laburtu eta atzizki edo kasu-marka bilakatu dira. Hizkuntzaren historiari dagokionez, hungarieraz mintzatu izan den herria, ekialdetik egun dagoen gune geografikorako bidean, zenbait herrirekin eta berauen hizkuntzekin kontaktuan izan da. Hizkuntzan sumatzen da mintzaera turkiar eta eslaviarren eragina, edo latinarena berarena. Latina, hungariarrek X.-XI.

mendeetan Panoniako ordokia konkistatu ostean, idatziz komunikatzeko hizkuntza izan zuten zenbait mendez.

- 4 Hungarierak euskararekin dituen antzekotasun tipologikoak eta hizkuntza indoeuroparrekin -bereziki, latinarekin- izan duen kontaktua kontuan hartzen baditugu, hor beharbada badugu euskararen eta hungarieraren arteko baliokide horien jatorria azal dezakeen hipotesi bat osatzeko lehen oinarria. Demagun euskaraz nahiz hungarieraz latineko edo antzeko hizkuntza indoeuropar bateko elementu bat, postposizio gisa mailegatu delarik, kasu-marka izatera iritsi dela. Latinezko hitz askeak mailegatu diren gisara, hizkuntza indoeuropar batekin edo batzuekin kontaktuan diren bi hizkuntzatan elementu berak mailegatu baldin badira eta atzizki gisa erabili, hau da, fenomeno linguistiko bera gertatuz gero, genetikoki ahaideak ez diren baina tipologikoki antzekotasunak dituzten hizkuntza biren arteko elkarguneak izan genitzake.
- 5 Latinak hungarierarengan izan zuen eragina benetan esanguratsua izan zen; batez ere, elizako erlijio-testuak hungarieratu zirenean. Sauvageotek dioenez, hungariera beste hizkuntza batzuekin kontaktuan egoteak ez zuen eragin aipagarriarik izan, baina latinak hizkuntzan aldaketa nabarmenak eragin zituen:

Le vrai problème d'adaptation ne s'était posé que lors de la confrontation avec le latin, langue de l'Église, instituée aussi langue de l'État. [...] Or traduire d'une langue dans une autre est toujours une opération délicate, surtout s'il s'agit de textes qui exigent d'être rendus d'aussi près que possible. Si la langue réceptrice est en position de faiblesse par rapport à la langue émettrice, le traducteur se trouve contraint d'imiter autant que faire se peut les procédés d'expression de cette dernière. (1971: 121)
- 6 Horrela, latinak hizkuntzaren hainbat arlotan izan zuen eragina, baina gehien eremu fonetikoan -alfabeto latinoak ezin isla baitzitzakeen hungarierazko bokalak- eta egitura morfologikoetan. Deklinabidea zabaltzea eragin zuen, latinez dauden hainbat erlazio adberbialek ez baitzuten hungarieraz parekiderik. Prozesua honako hau izan zen normalean: lehenik, kasu-marka zeukan postposizio bat -berez edo posesibo baten bitartez- izenaren atzean ezartzen zen eta, bigarren, harmonizazio bokaliko baten ostean, erreduzitu eta atzizki izatera iritsiko zen. Adibidez, Tihany abadiako XI. mendeko fundazio-itunean halako postposizio bat ageri da, *-ra* kasu-marka eman duena, "Déjà la charte de Tihany présente plusieurs emplois de la postposition *rea* [...] qu'on a traduite par le latin *ad*. On a même pu se demander si dès ce moment, le mot *rea* n'était pas plutôt déjà une sorte de désinence casuelle" (Sauvageot 1971: 145). XIII. menderako nahiko aurreratua zegoen gramatikalizazio fenomeno hori². Euskarak eta hungarierak irudiz partekatzen dituzten kasu-marka horien antza funtsatzeko badago lehen hipotesi bat planteatzea: hizkuntza biek, latinarekin kontaktuan izan zirelarik, preposizio bera mailegatu zuten, eta biek ere izan dituzten antzeko mekanismo linguistikoek eragin dute preposizio hori kasu-markaren atzeko posiziora igarotzea.
- 7 Hungarieraren historiaren literaturak ez du indartuko halako hipotesi bat. Ez dugu ediren, adibidez, latinetik *ad* preposizioa mailegatu eta atzizki gisa kasu-marka izatera iritsi izan delako proposamenik. Ez dagokigu geuri azaltzea gurea ez den eta aski ezagutzen ez dugun hizkuntza batean gertatu zena. Zuhertasun metodologiko horrek ez du oztopatzen, ordea, abiapuntuko hipotesi hori luzatuz, kasu-markak osatzeko modu hori euskaraz gertatu izan ahal den aztertzea.

2. Euskararen kasu-markak: mailegua zilegi?

- 8 Duela berrogei urte, 1980ko hamarkadan, latinak eta hizkuntza erromanikoek euskarari izan duten eragina aztertu zuenean, Luis Mari Mujikak lehendabizi proposatu zuen latineko *cum* preposizioak bazuela zerikusi hipotetiko bat euskarazko *-kin* kasu-markarekin (cf. 1982: 214)³. Alabaina, Mujikak proposamena egin ostean, euskal kasu-markek eta latineko preposizioek izan dezaketen balizko erlazioan ez da gehiegi sakondu.
- 9 Mujikaren proposamenak berak ez ditu jarraitzen hizkuntzaren historialarien artean onartuenak diren Schuchardt hizkuntzalariak euskal sozietiboaren⁴ jatorriari buruz emandako azalpenak. Hizkuntzalari alemaniarrak 1923an proposatu zuen *-kin* kasu-markaren oinarrian *kide* izena zegoela. Hungarieraz gertatzen ohi zen bezala, postposizio gisa erabiltzen zen *kide* izena, bestelako morfemez inguraturik, higitu bide zen eta atzizkia sortu; eskematikoki adierazita, honako prozesu hau gertatu ei zen: *-kin* < *kide* + *-n* (inesiboa) (Schuchardt 1947 [1923]: 61). Etimologia hori funtsatzeko, d'Urtek erabiltzen zuen *-kie* forma baliatu zuen alemaniarrak. Erraz onar daitekeen etimologia hori zuzena izan da euskalari gehienentzat⁵, eta hizkuntzalarien komunitateak ontzat eman duen azalpen bat zalantzan jartzea atrebentzia litzateke. Edozelan ere, ezagutza handiko eta zentzu oneko autoritateen pisua daroaten baieztapenei lantzean behin zalantza metodikoa aplikatzea osasungarria izan daiteke. Antza, Tartas eta d'Urtek erabili zuten forma hori ez denez aurreko mendeko testuetan agertzen, agian ebidentzien aurka onartu beharko genuke forma zaharrena gorde zutela autore horiek. Bestetik, etimologia horretatik abiatuta zaila da *-kila* bezalako forma dialektalen jatorria azaltzea, ez bada *-kie* forma hori aspaldi *-ki* bihurtu zelako. Azkenik, hor ditugu *adiskide* bezalako hitz elkartuak, *kide* elementuan transformazio fonologikorik izan ez dutenak, eta ez diruditenak berriegiak. Bilakaera diferentea azaltzeko, atzizkien aldakortasuna inbokatu beharko genuke, eta suposatu hizkuntzan oso erabilia den *kide* hitzaren esanahia nolabait ahantzia izan zela, gramatikalizazio prozesu hori zilegi izateko *-adibidez*, *-gatik* bezalako atzizkietan gertatu bide zen bezala⁶.
- 10 Schuchardten teoria indartuko luke atzizkiaren aurretik genitiboa izateak, hitz autonomoak diren edo izan diren zenbait postposizioek baitaramate, hala nola *horren kontra* edo *horregatik* bezalakoek. Alabaina, sozietiboa genitiboaren gainean eraikia dirudien arren, antzinatek ditugu kasu-marka hori gabeko formak, hala nola Landucciren hiztegian aurki ditzakegu absolutiboaren gainean eraikiriko *verbaquin injuriadu* edo *oyñaquin çapaldu* bezalako formak, gaur egun ahoz erabiltzen direnak bezalakoak (cf. Altuna eta Azkarate 2001: 105).
- 11 Mujikak ez zuen beharbada bere proposamena aski garatu. Saiatuko gara gipuzkoarrak proposaturikoa funtsatzen, eta hipotesi gisa, *working hypothesis* gisa bederen, *cum* preposizioak izan zezakeen latinetiko bidea beste zenbait preposizioek ere jarrai izan zezaketen aztertuko dugu. Lehenik, ez da zaila *zukin* bezalako forma bati eta latinezko *tecum* bezalakoei antzekotasuna sumatzea. Gauza ezaguna da latineko *cum* preposizioa, pertsona izenordainekin, postposizio gisa erabiltzen zela. Adierazgarria da, halaber, Gaztelako erromantzean, postposizioa iluna bilakatu zenean, berriz ezarri zitzaizkion preposizioa, *contigo* (< *cum-tecum*) bezalako formak emanek. Badirudi latinean hitz atzeko kasu-marken eta hasierako preposizioen posizionamendua kulunkaria izan zela historian zehar. Teoria baten arabera, litekeena da indoeuropeerak bazeuzkan zenbait kasu-markaren galera dela eta ablatiboaren inguruan funtzio eta esanahi larregi bildu

zirelarik, anbiguotasunak sortzea eta hortik, nahasmena ekiditeko, preposizioen beharra (cf. Segura 2007: 13-14). Mujikak xeheki aztertu zuen latinak eta bere jarraitzaileek euskarako hainbat eremutan izan duten eragina inperioaren garaitik aurrera, euskara latin klasikoarekin kontaktuan izan zen mendeetatik aurrera. Kontaktu horren hasieratik bertatik erlazioa estua izan omen zen; kontuan izan behar da soldadu gisa Erromaren gudarosteetan euskaldunek izan zuten eginkizuna, eta ondoren ere izan ziren hartu-eman etengabeak, merkataritzan edo geroago eliz liturgian suma daitezkeenak adibidez. Testuinguru horretan, ez da zentzugabekeria pentsatzea hasieratik egon izan zela nolabaiteko elebitasun maila bat eta horrek euskararen morfologia eragin nabarmena izan zezakeela.

- 12 Euskarazko *-kin* atzizkiarekin jarraituta, euskal kasu-markaren eta latinezko preposizioaren arteko antzekotasun fonetikoak, hala ere, badauzka zenbait eragozpen. Alderatzen baditugu *cum* eta *-kin* argi dago hasieran bietan herskari belarra dugula eta sudurkari bat bukaeran. Sudurkariaren artikulazio puntuaren diferentzia erraz azal liteke, euskaraz bukaerako posizioan ez dagoelako ezpainbikaririk eta oposizioa neutralizatu egingo litzatekeelako. Eragozpen handiena bokalak sortzen du, latinetik harturiko mailegutan latineko bokalak euskaraz tinbre berarekin jaso baitira normalean. Diferentzia justifikatzeko, atzizkietan ematen den aldakortasuna argudia dezakegu. Kasu-marken morfologiaz arduratu izan diren adituek kontuan dute arruntean ez dela zilegi hizkuntzaren beste eremu batzuetan ediren ditugun aldaketa fonetikoaren erregularitasuna bilatzea atzizkietan, zenbait faktore direla medio: posizio berean diren beste morfema batzuek nahasmenerako, erakarpenerako edo bereizketarako duten indarra, entitate foniko txikia izatea, gardentasun semantiko txikia, edo beste hizkuntza batekin egon daitekeen kontaktuak izan dezakeen eragin eraldatzailea. Faktore horiek kontuan hartuz, irregulartasuna justifika liteke, seguruena, beste atzizki batekin legokeen antzekotasun semantiko edo sintaktikoak atzizki horren osaera fonetikoranzko erakarpena eragin zuela argudiatuta.
- 13 Euskal sozietiboa latineko preposiziotik etor daitekeela baieztatzeke beste zailtasun bat izan liteke latinez *-m* bukaera zuten hitzetan sudurkaria ez zela argi ahoskatzen inperioaren garaian bertan. Adibidez, euskarak latinezko akusatibotik hartu dituen hitzetan bukaerako sudurkaria euskaraz ez da gordetzen (*esaterako, florem > lore*)⁷. Nolanahi ere, badirudi sudurkaria hobeto gorde zela *u* bokal itxiaren ostean eta monosilaboetan *-adibidez, gaztelaniaz quien* izenordainean (cf. Niedermann 1959: 104)-. Gorago aipatu dugu gaztelaniaz sudurkaria mantendu egin dela, Logudoroko sardinieraz bezala, dialekto horretan *kun* forma mantendu baita (Väänänen 1968: 117-118).
- 14 Maila fonetikoan beste arazo bat sortzen da: bukaerako sudurkaririk gabeko *-ki* formak zaharragoa ematen du. Inesiboaren markatzat jo den soinu hori gabeko forma zaharragoa dela pentsatu izan dute zenbait euskalarik, hala nola Mitxelenak edo Gómezek (cf. Santazilia 2013: 270), baina testu zaharrek sudurkaria daukaten formen lekukotasuna ematen dute hasieratik ere, Landucciren hiztegian aditzari laguntzen dieten osagarriek erakusten duten bezala.
- 15 Bada latinez erabileraren aldetik euskarazko *-kin* kasu-markarekin nolabaiteko antza duen beste atzizki bat, beharbada *cum* latindarraren ingurumenera gerturatzen zena. Elkarren artean erlazio estua duten izen sintagmen arteko lotura kopulatiboa latinez *-que* enklitikoaren bitartez egin zitekeen inperioaren garaian (cf. Rubio Fernández eta González Rolán 1985: 232-233). Ezaguna da K.a. I. mendetik K.o. IV. mendera legio

erromatarren blasoieta ageri zen *SPQR* sigla, azpian *Senātus Populusque Rōmānus* zeukana; hau da, “Senatu eta herri erromatarra”. Enklitiko horrek eta euskarazko sozietiboak partekatzen dute IS laburren koordinazio kopulatiboa bideratzeko ahalmena, euskara zaharrean *amaren biziarekin aitaren libertatea* bezalakoek egungo *amaren bizia eta aitaren libertatea* esan nahi baitzuten. Sozietiboaren erabilera hori hedatua zegoen euskalkietan zehar, baita *-gaz* atzizkia erabiltzen duten mendebaldeko euskalkian ere (cf. Lakarra 2008: 94)⁸. Azken finean, zentzuak berak bideratzen du, batetik, elkarrekin egotearen nozioa eta, bestetik, zenbait elementu biltzea edo gehitzearena, baliokideak edo antzeko xamarak baitira *-egun* ere ia-ia berdinak dira *kafesnea, kafea eta esnea* eta *kafea esnearekin*.

- 16 Nozioen antzekotasunagatik, sozietiboa koordinatzaile gisa erabiltzea denboran zehar hainbat hizkuntzatan eman den arren, hipotesi gisa behintzat, geure buruari galde diezaiokegu ea zilegi den latineko enklitiko hori euskarak zuzenean jasotzea. Mailegatzearen alderdi fonologikoari dagokionez, gorago *-kin* atzizkiaren kasuan esan dugun modu berean, baditugu hizkuntza bietan egitura nahiko paraleloak: herskari belar bat eta antzeko bokalak, artikulazio puntuari dagokionez bederen. Bokalen antzekotasuna gorabehera, oraingoan ere kontuan izan behar dugu latinezko bokalen tinbrea mantendu egiten dela euskaraz jaso diren latinezko maileguetan, eta historian zehar bokalak nahiko egonkor mantendu direla, hitz-elkarketan edo zenbait diptongotan izan ezik. Hala ere, beharbada hemen ere atzizkien arteko interferentziaren bitartez azal liteke bokalen arteko diferentzia hori; adibidez, *ongi* edo *apalki* bezalako formetan, adberbioak osatzeko erabiltzen den *-ki* eratorpen-morfemak interferentzia sortu zuela pentsatuz. Baliteke, halaber, jatorri desberdineko *-ki* eta *-kin* forma horiek biak batera egotea euskaraz antzinatek, eta geroago sudurkaria inesibo gisa berrinterpretatzea. Ez da erraza, ordea, euskarazko sozietiboaren jatorri bikoitza baieztatzea. Latinezko enklitikoa, bestalde, inperioaren garaian latin mintzatuan gero eta gutxiago erabili zen, eta penintsulako erromantzeetan ez da jaso. Schuchardten etimologia ordezkatzeko duen teoria berri bat onartzeko eragozpen handiena litzateke, hala ere, latinak euskararen morfologian izan duen eraginaren irudi orokorraren aurka egin beharra.
- 17 Latina eta hizkuntza erromanikoak etxean indarrez sartu zaizkigun gonbidatu desatseginen pare hartu izan ditugu, baina ezin da ukatu bi mila urtez eragina izan dutenik. Euskararen gramatika bera latinaren moldeetara egokitu dugu; hor daukagu Larramendi jesuita andoaindarrak XVIII. mendeko hastapeneko gramatika lanetan, adibidez, euskararen kasu-markak latinaren sei kasuen kutxatilara moldatzea. Hasierako hizkuntzalariak antzekotasunak sumatzen baldin baditu *-batzuetan*, hizkuntza biek kategoria bertsuak zituztela frogatu nahi zen, horrek daukan balio teoriko, metodologiko, pedagogiko eta sinbolikoarekin (cf. Urgell *apud* Gorrotxategi *et al.* 2018: 643)-, zentzu onekoa da pentsatzea erromatarren garaitik aurrera euskararen hiztun arruntak alboan izan duen goragoko estatus soziolinguistiko bateko hizkuntzarekin analogiak sortzeko eta egitura morfosintaktikoak gerturatzeko joera izan duela.
- 18 Hizkuntzan bertan latinak izan duen eraginari dagokionez, lexikoan aurki ditzakegun maileguen ugaritasuna azpimarratu den arren, hizkuntzaren morfologiaren gaineko eragina txikia izan dela kontsideratu izan da. Honela laburbil daiteke Mitxelenaen iritzia:

En el terreno a flor de tierra tradicionalmente asignado a la morfología, poco es también lo que nos enseña la lengua vasca: que los temas nominales (con las

consabidas excepciones) se han tomado del acusativo latino, y los verbales del participio (vasc. -tu), no sin algunas adaptaciones. Pero si la declinación latina ha dejado escasa huella, se puede mostrar, sobre documentos medievales navarros por ejemplo, que hay casi una correspondencia biunívoca entre la expresión de los casos locales por preposiciones en romance y por sufijos o posposiciones en vascuence. De nuevo tenemos ante los ojos el modelo románico inmediato. (Mitxelena 1988: 121)

- 19 Mitxelenaren garaitik hona, preposizio erromanikoen eta euskarazko atzizki edo postposizioen erlazio estuaz gain -beharbada biunibokotasunaz mintzatzea ez da guztiz egokia-, morfologiaren beste eremu batzuetan ere sumatu izan dira egitura paraleloak, hala nola adizki perifrastikoetan. Haasek (1994) aditz perifrasiaren egitura analitikoa euskara hizkuntza erromantzeekin kontaktuan egon baino lehenagoko eragintzat jo zuen, beharbada latin mintzatuak berak eragina, *habeo-factum* perfektuarekin dagoen antzekotasunean oinarriturik (cf. Santazilia 2013: 355). Badirudi euskarak bazituela aurretik ere egitura perifrastikoak, eta perifrasi guztiak ez direla garai berean sortuak (cf. Urgell 2006, Monoule 2008, edo Lakarra 2008). Morfosintaxiaren eremu horietatik landa, alabaina, badirudi ez dutela arreta jaso hizkuntzen artean itxuraz gertatu diren bestelako korrespondentzia batzuek; Mitxelenak emandako honako adibide honetan, esaterako, adierazgarria izan daiteke erromantzezko preposizioan eta euskarazko atzizkian sudurkari bera daukagula: “dos piezas en Nouare uidean”. Toponimoa inesiboan jaso zuen eskribauak ere ez zuen errepikapena antzeman; seguruen, ez zelako elebiduna.
- 20 Euskararen postposizioetan txertatu izan den maileguren artean badugu preposizio bat behintzat, *kontra* postposizioa bilakatzen dena, Trasken hitzetan, “an unusual case of preposition borrowed as postposition” (1997: 208)⁹. Postposizio hori izenari normalean genitiboa tartekaturik atxikitzen zaio, baina absolutiboaren edo datiboaren bitartez atxikia ager daiteke halaber. Egia da, jatorriz preposizioa den arren, hitz mailegatuak eduki semantiko handia duela, eta esanahi argiko elementua dela; erraz mailegatu izateko, beraz, badu gardentasuna. Baina hipotesi gisa behintzat, planteatu dezakegu eduki semantiko arinagoa zuten preposizioak ere mailega zitezkeela.
- 21 Azken hamarkadetan, hizkuntzen arteko kontaktuan gertatu diren gramatikalizazio prozesuak aztertu dituzten ikerlariak aurre egin behar izan diote aurreko hizkuntzalaritzan zegoen uste hedatu bati. Lehenago pentsatzen zenez, lexikoa aise mailega daitekeen arren, hizkuntzek nahiko erresistentzia handia ipintzen diote eragin morfologikoari; alabaina, ikerketek frogatu dute edozein elementu linguistiko transferitu daitekeela hizkuntza batetik bestera. Badira, nolana ere, mailegaketarako zenbait muga; badirudi, adibidez, elementu batzuk besteak baino errazago mailega daitezkeela, edo gramatikalizazio prozesuek bide finko batzuk hartzen dituztela. Hala ere, egoera jakin batean mailegaketan eragina duen faktore nagusia zein den zehazki jakitea zaila izan daiteke, hizkuntzaren barneko nahiz kanpoko faktoreen interakzioa gertatzen baita. Pisua dute hizkuntzaren joera orokorrek, bi hizkuntzen arteko diferentzia edo antzekotasunek, kontaktua izateak, faktore sozio-linguistikoek, etab. Elementu baten mailegagarritasuna ezartzeko edo mailegaketan gertatzen diren fenomenoaren bide zehatzak definitzeko orduan badago ikerlarien artean orokortzerako joera natural bat, eta ikertzaile batzuk arau tankera duten unibertsalak finkatzen saiatu dira. Beste ikerlari batzuentzat, ordea, eragina duten faktore horiek, indarrak baizik, tendentziak edo joerak baizik ez dira (Heine eta Kuteva 2005: 12). Hizkuntzaren elementu estrukturalen mailegagarritasunari buruz egin diren hainbat proposamen

balio unibertsala eta arauaren maila eman nahi izan zaie, batzuetan funtsik gabeko behaketa inpresionistetan oinarrituta, eta salbuespen esanguratsuak larregi kontuan hartu gabe; hala ere, sumatzen diren joerak kontuan ez hartzea kaltegarria da, Matrasen hitzetan, “naïve and counterproductive” litzateke (2008: 36).

- 22 Aipatu izan dira zenbait faktore eragin zuzena dutenak mailegaketan, adibidez, kontaktu egoera batean, autonomia edo erreferentzialtasun egonkorra duten elementuei errazago eragiten die kontaktuak mendekotasuna edo erreferentzialtasun ezegonkorra duten elementuei baino (Heine eta Kuteva 2005: 8). Esanahiaren aldetik gardenagoak diren elementuak, hortaz, errazago hartzen ditu hizkuntza batek, baina horrek ez du esan nahi preposizioak ezin direnik mailegatu, edo kasu-markak preposizioetatik sortu ezin direnik. Adberbio eta postposizioez gain, batzuetan preposizioek ere kasu-markak sortzen dituzte (cf. Kulikov 2009: 439).
- 23 Beste hizkuntza batzuetan gertatu denari erreparatzen badiogu, erreferentzia baliagarriak topa ditzakegu, batez ere, euskararen historian gerta zitekeena argitzeko. Esanguratsua izan daiteke, adibidez, Amerikako zenbait hizkuntzatan gaztelaniarekin kontaktuan gertatu dena. Tipologia diferenteko hainbat hizkuntzatan, bostehun mendeko kontaktuaren ostean, preposizioak mailegatu dira; normalean preposizioak aurreko lekua mantendu du, baina batzuetan atzeratu egin da. Adibidez, Nahuatl hizkuntzak, jatorriz preposizio nahiz postposizio gisa funtzionatzen zuten elementu linguistikoak zeuzkalarik, gaztelaniazko *de* eta *por* preposizioak mailegatu ditu (Fischer 2000: 25). Mesoamerikako beste hizkuntza batzuek ere zenbait preposizio mailegatu dituzte, Otomi delakoak, esaterako, *ko* preposizioa osatu du, gaztelaniazko *con* preposiziotik abiatuta (Matras eta Sakel 2007: 435), edo Purepechak *hasta*, *desde*, *apenas*, *para* eta *por* preposizioak mailegatu, eta *ya* adberbioa atzeraturik jaso du (*ibidem*: 465). Jatorriz, erlazioak bideratzeko izenak baizik ez zeuzkan Pipil hizkuntzak, preposizio nahiz postposiziorik ez zeukalarik, gaztelaniazko *para* preposizioa jaso zuen, *-pal* menderagailu atzeratua sortuz (Heine eta Kuteva 2005: 246).
- 24 Munduko zenbait hizkuntzatan ere ediren ditugu adibide esanguratsuak. Papua Gineako zenbait hizkuntzatan beste hizkuntza batzuen eraginez preposizioak atzeratu dira (Heine 2005: 86-88 edo 136). Azkenik, turkiar familiako Karaim izeneko hizkuntzak preposizio mailegatuak erabiltzen ditu postposizio gisa (Csató 2000 *apud* Malchukov 2009: 499).
- 25 Itzul gaitezen Traskek hungarieraren eta euskararen atzizkietan topatu zituen antzekotasunetara. Sozietiboko kasu-markari eta latinezko preposizioari antza sumatu diegun modu berean, oinarriko leku-denborazko kasu-marketan ere antzekotasun fonetikoak eta ekibalentzia semantiko-sintaktikoak suma genitzake. Hona latinezko preposizioek euskaraz izan litzakeen baliokideak:

A montem, AD montem	<>	mendirA, mendirAT
IN montem	<>	mendiaN

- 26 Traskek aurkitu zituen hungarierazko eta euskarazko balizko parekideez gain, honako ekibalentzia agian zalantzarriagoak suma genitzake:

EX monte	<>	mendiZ
DE monte	<>	mendiTI

- 27 Ezin da ukatu ekibalentzia horietan, soinu antzekotasunaz gain, preposizio-atzizkiek antzeko nozioak bideratzen dituztela; hau da, leku-denborazko kasu-markek bideratzen dituzten nozio nagusiak: kokapena, abiapuntua, pasabidea eta helburua. Hipotesi erakargarria izan daiteke, batetik, nozio semantiko-funtzional horiek bideratzen dituzten atzizki horien sorrera hizkuntzaren mekanismo bakar baten bitartez azal litekeelako eta, bestetik, erregulartasunaz gain, kasu partikularretatik abiatzeak ez daukan ekonomia izango lukeelako azalpenak. Baina morfologiaren eremuan normalean fenomeno linguistikoak ez dira horren simple eta erregularrak izaten.
- 28 Parekidetasun horiek banan-banan aztertu baino lehen, azpimarratu behar dugu leku-denborazko kasuak berrikuntzat jo izan direla. Badauzkate kasu gramatikalek ez bezalako ezaugarri batzuk. Batetik, ez dituzte betetzen gainerakoen arau morfologikokoak; adibidez, balioz singularrak direnean, kasu batzuetan ez da *-a* artikulua ageri. Bestetik, sustantzia foniko eta semantiko handiagoa dutela esan daiteke, eta geografian eta kronologian polimorfismoa antzematen da (cf. Trask 1997: 247). Azken mendeotan euskalkien artean sumatzen den bereizketarako joera gorabehera, euskararen idatzizko lekukotasun osoagoak jasotzen diren unean, lehen lekukotasun horiek egungo formatik nahiko gertukoak dira orokorrean, eta atzizkiaren eta sintagmaren amaierako elementuaren artean tartekatzen diren loturazko bokal eta kontsonante epentetikoak (*-e-* eta *-r-*) ere finkatuak daude (cf. Altuna eta Azkarate 2001: 85).
- 29 Topatu ditugun ekibalentzietatik lehenean, adlatibozko kasuarenean, badirudi *-ra* atzizkiaren lehen kontsonantea loturazko kontsonantea dela, *Zarautza* bezalako toponimoetatik ondorioztatu daitekeenez¹⁰. Bi dira ekialdeko lehen testuetan ageri zaizkigun kasu honen formak, bukaeran kontsonante horzkaria duena eta kontsonantegabea: *mendirra* eta *mendirat*. Gavelek lehendabizi antzeman zuenez, jadanik Leizarragaren idatzietan bukaeran kontsonantea zeukan formak eta kontsonantegabeak bazuten diferentzia semantiko bat: *mendirak* egungo esanahi bera izango luke eta *mendiratek*, aldiz, egungo *mendirantzena* izango luke (cf. Santazilia 2013: 257). Latin klasikoan ere bereizi egin beharko genituzke, batetik, *a*, *ad* + akusatiboa, preposizio horien funtzio nagusia litzatekeelarik helburua adieraztea eta, bestetik, *a*, *ab* + ablatiboa, azken preposizio horiek funtzio nahiko diferenteak zeuzkatelarik, hala nola subjektu pasiboa aurkeztea, edo jatorrizko norabidea adieraztea¹¹. Bi preposizio taldeek alderantzizko norabidea adierazteko balio arren, Erdi Aroan gaztelaniaz bildu egingo ziren, eta norabidea adierazteaz gain, euskarazko datiboak normalean adierazten duen harremanerako baliatuko zen ordutik aurrera, adibidez, *a todos los hombres* bezalakoetan (cf. Urrutia Cárdenas 2001: 33)¹².
- 30 Suposatuko bagenu euskarak latinezko *ad* preposizioa mailegatu zuela, adlatibozko kasu-marka sortuz, alderdi fonetikotik ez dago eragozpenik hipotesia oinarritzeko. Euskarazko kasu-markaren lehen kontsonanteak lotura bideratzen duela kontsideratzen baldin badugu, latinetik euskararako trantsizioak ikuspegi fonetikotik ez du arazorik sortzen, bokala bera baita. Bukaerako kontsonante horzkariarekin

mailegatu zela pentsatuz gero, euskaraz amaierako posizioan ahozkotasuna neutralizatu egingo litzateke eta latineko ahostuna euskaraz ahoskabe bilakatuko.

- 31 Erromantzean mantendu ziren latinezko preposizioen artean, bigarrenik, latinezko *in* preposizioa euskaraz inesiboko postposizio gisa jaso izan zitekeen aztertuko dugu. Preposizioaren funtzioari edo alderdi semantikoari dagokionez, gorago ikusi dugu preposizio-postposizioen arteko balizko biunibokotasuna. Alderdi fonetikoari dagokionez, inesiboaren jatorrizko marka *-n* dela onartua dago; hori da leku-izenetan ageri den forma *-esate* baterako, *Bilbon*¹³- eta Leizarragaren itzulpenean edo zubereran *etxen* bezalako formen lekukotasuna ere badaukagu. Latinetik *in* bere horretan jaso dela baieztatzeke, ordea, bokala nola galdu den azaldu beharko genuke. Beharbada, aski izan beharko litzateke besterik gabe sudurkari bera daukagula adieraztea, *ad hoc* sortutako esplikaziorik gabe.
- 32 Beharbada, hipotesi honen argitan, beste etimologia bat eman diezaiokegu momentura arte latinezko *horarekin* harremanean jarri den *orain* hitzari. *Orotariko Euskal Hiztegian*, mendebaldean hedaturik eta Leizarragaren nahiz Etcheberri Ziburukoaren testuetan ageri den *orain* hitza latinezko *hora* eta erakusle batek (*-aen* seguruenen) osatua dela proposatzen da, gaztelaniazko *ahora* gogoan (RAEren hiztegian: < *agora* < *hac hora* “en esta hora”). Bitxia dirudi erakusle batetik *-in* sortzea; printzipioz, askoz ere errazagoa litzateke *in* preposizioa atzeraturik bere horretan jaso dela pentsatzea (cf. gaztelaniazko *enhorabuena* nahiz *en hora buena*, edo Vulgatako honako pasarte hau: “et facta hora sexta tenebrae factae sunt per totam terram usque in horam nonam” [Markos 15: 3]).
- 33 Euskararen alboko erromantzeetan gaurdaino iritsi ez diren preposizioen artean dugu *e(x)*, abiapuntua edo igarobidea adierazteko erabiltzen zena. Euskaraz mailegatu zela suposatuko bagenu, preposizioan agertzen zaigun *x* grafemari dagokionez, badirudi azpian den *ks* taldea igurzkarri sinple gisa jaso zitekeela pentsatzeko hainbat zantzu direla. Penintsulako erromantzeetan batzuetan jarraipenik izan ez duten preposizio konposatuetan ageri zaigu, adibidez, *ex tunc* < *estón* edo *ex tunc* < *estonce* bezalakoetan, eta beste batzuetan, berriz, jarraipena izan dutenetan, *de ex post* > *después* edo *ex de* > *desde* bezalakoetan kasu (cf. Urrutia Cárdenas 2001: 335). Bestetik, euskarak historikoki ez du kontsonante talde hori izan, printzipioz igurzkarri hobikari apikari gisa jasoko zuen seguruenik. Akitanerazko BELEXCONIS lekukotasun ospetsuan, badirudi X grafemaren azpian txistukari soil bat dugula. Instrumentalak badu ezaugarri fonetiko berezi bat, euskaraz hitzaren azken posizioan txistukariak neutralizatu egiten direlarik, afrikatua espero genezakeen; agian horrek esan nahiko luke atzizkia bere horretan ez dela zaharregia¹⁴. Nolanahi ere, zaila egiten da latinez gutxi erabilia zen preposizio bat, erromantzean jarraipenik izan ez zuena, euskarak mailegaturiko elementua dela pentsatzea. Bestalde, hasierako bokala ezabatzeko arrazoia ere ez legoke guztiz argi. Nozio semantikoari dagokionez, *mendiz mendi* bezalakoetan behintzat, badirudi instrumentala deritzagun atzizkiak latinezko preposizioaren balio bera edo antzerakoa izan zezakeela.
- 34 Euskarazko instrumentaleko kasua latinezko preposiziotik sortu zela zalantzarria ematen du, baina euskaraz badago latineko kasu-marka baten aztarna eta instrumentalean eragina izan zezakeela ez da guztiz hipotesi zentzugabea. Beharbada onar daiteke patronimiko eta toponimoetan erabili bide zen latinezko genitiboak euskarazko instrumentalean eragina izan zuela, ez baldin bazen bere horretan atzizki moduan jaso. Patronimikoei dagokienez, onartua da latinezko genitiboa euskarazko

pertsona izen-abizenetan agertzen dela, adibidez, *Pero Gartzreiz* “*Pero Gartzearen (seme)a*” izango litzateke eta *Gartzea Periz*, aldiz, “*Gartzea Peroren (seme)a*”; azken finean, genitiboak oinordekotasunaren norabidea adieraziko luke¹⁵. Zilegi da pentsatzea, beharbada, gertuko esanahi eta funtzioa izanik, preposiziotik letorkeen atzizkiaren eta toponimo nahiz antroponimoen arlo berezian erabiltzen zen atzizkiaren artean koaleszentzia bat gertatu zela. Esanguratsua da, bestalde, toponimoetan geratu den aztarnan sarritan -z baizik ez zaigula ageri, hitz bukaerako bokala ez baita *i* derrigor.

- 35 Latinezko genitiboaren forma hori toponimo eta antroponimoetan bere horretan jaso dela baieztatzen baldin badugu, eta hori da proposamenik argiena eta onartuena, horrek balituzke inplikazio batzuk. Hasteko, preposizioa mailegatzea baino zailagoa da kasu-markak zuzenean jasotzea, adposizioak semantikoki gardenagoak eta nolabait autonomoak direnez, errazago mailegaten baitira. Hizkuntzaren nukleoan diren euskarazko kasu gramatikaletan¹⁶ ez dugu sumatzen beste hizkuntzen eraginik, eta badirudi elementu horietara iristea litzatekeela zailena, “case markers with central syntactic functions are less transparent and less salient, mostly displaying reduced shapes. Their opaque structure makes it difficult to decide whether they are copies or not. Case-like adpositions, which are more transparent and open to analysis, with materially richer shapes and relatively specific meanings, are more copiable” (Johanson 2009: 498). Matrasek proposatzen duen mailegagarritasunaren eskalan azken posizioan daude inflexio atzizkiak eta, normalean, beste elementu batzuk lehenago mailegaten direnean hartuko ditu hizkuntza batek (2007: 61). Prekauzioz hartu beharreko honako segida hau gertatuko litzateke:

izenak, juntagailuak > aditzak > lokailuak > adjektiboak > interjekzioak > adberbioak
> bestelako partikulak, adposizioak > zenbatzaileak > izenordainak > deribaziozko atzizkiak > inflexio atzizkiak

- 36 Segida horren arabera, inflexio atzizkiak mailegatu baldin badira, zilegi da adposizioak mailegatu izana. Gauza bera esan dezakegu kokalekua aditzera ematen duten erlazio-hitzei dagokionez, periferiako hizkiak errazago mailegaten dira nukleoa osatzen dutenak baino, “(‘in’, ‘at’, ‘on’) are borrowed less frequently than ‘peripheral’ relations (‘between’, ‘around’, ‘opposite’)” (Matras 2007: 42). Hortaz, euskaraz latinezko *contra* edo *post* bezalako preposizioak mailegatu baldin badira, nukleoa osatzen duten preposizioak mailegatzeko aurreneko urratsa emana dago.
- 37 Gaztelaniaz iraun duten latinetiko preposizioetatik emankorra beharbada *de* dugu, *ab* edo *ex* bezalako preposizioen lekua hartu zuena. Euskaraz topatu diogun baliokideari dagokionez, egun *-tik* forma dugun arren, bizkaieraz eta zubereraz *-ti* forma ere badugu eta, Gavelek gaineratu zuen bezala, bizkaieraz *-xe-* artizki gisa ageri da *-tixek* bezalako formetan¹⁷. Beraz, suposatuz gero latinezko preposizioa euskaraz mailegatu zela, latinezko *de* preposiziotik euskaraz *-ti* kasu-marka izango genuke. Maila fonetikoan euskarazko postposizioa eta latinezko preposizioa nolabait antzekoak dira, biek baitute horzkaria eta bokal itxia. Ez da erraza azaltzen latinezko ahostuna nola bilakatu zen ahoskabe, baina honako hipotesi hau proposatuko dugu: fusio edo amalgamazioa gertatu zela adjektiboak sortzen zituen morfema batekin (**-Ti*¹⁸) eta datiboaren markarekin (esan izan da beharbada gauza bera zirela).

3. Datiboa: leku-denborazko kasua?

- 38 Lafonek proposatu zuen 1948an gaur egungo *-ti* ablatiboaren jatorriari buruz eman den hipotesirik onartuena. Egun kasu-marka honetan hedaturik dagoen erabilera, garai eta lekuen arabera, ez da izan beti berdina. Lafoni, *goiti mirigiten*, *apal erortzen* Zaraitzuko esaera zaharrean, iruditzen zitzaion bi perpausen artean simetria ematen zela, eta bi esaldiak atributiboak zirela; hau da, *apal* adjektiboa den moduan, *goitik* ere adjektiboa izan beharko zuela. Kontuan izanik *goitik* zenbait kategoria gramatikal izan ditzakeela, hala nola izenondoa, “gehigarri” adierarekin, izena, “hondarra” adierarekin, edo aditzondoa, “nora” balioarekin (cf. Altuna eta Azkarate 2001: 131), jatorrizko kategoria adjektiboa zela ondorioztatu zuen *-bere* hitzetan, “élargi plus tard en *-tik*, un ancien adjectif qui a été intégré au système de la déclinaison” (1999 [1948]: 202)-. Adjektiboaren oinarria *negarti* bezalakoetan ematen den adiera izango litzateke. Mitxelenak hipotesi hori ontzat eman zuen; *FHV*n ageri denez:

Este *-ti* puede identificarse sin gran temor con el suf. que añadido a nombres de determinaciones espaciales forma derivados con función nominal y adverbial: *beheiti*, guip. vizc. *barruti*, *gaindi* (sul. *gáinti*), *goiti*, *urruti* 'lejos' (cf. *urrun* id.), de *be(h)e* 'parte inferior', *barru* 'interior', *gain* 'superficie', *goi* 'parte superior'. La oclusiva final no es más que un elemento sufijado a *-ti*, o lo que queda de él [*oinoharrean*] Lafon [...] quien identifica este *-ti* con el suf. de igual forma en adjetivos como *lotsati* 'vergonzoso, tímido' de *lotsa* 'vergüenza': puede tratarse, efectivamente, de un mismo morfema en todos los casos. (1985 [1961]: 237)

- 39 Guk uste dugu kategoria gramatikalen artean zegoen iragankortasuna *-mugen* lausotasunetik zetorrena- dela Lafonen analisiak daukan elementurik garrantzitsuen¹⁹. Iragankortasun horretan uler daiteke gorago egin dugun proposamena; hau da, norabidea adierazten duen *-ti* atzizkian bil litezkeela, latinetik preposizio atzeratua, adjektiboak sortzeko morfema bat *-ez* derrigor Lafonek proposatu zuen *-ti* hori zehazki, adiera nahiko espezializatua baitu- eta datiboa.
- 40 Gauza ezaguna da latinezko partizipioaren *-tu* morfemak ordezkatu zuela zaharragoa zen aditzetako *-i* morfema. Latinezko jatorria duen morfema horren bitartez sortzen da, adibidez, *apur* izenetik *apurtu* aditza. Gauza jakina da, bestalde, partizipioak adjektibo funtzioa har dezakeela; adibidez, *birrindu* aditzetik *gazta birrindua erabili du pasta egiteko* esan daiteke. Hipotesi gisa, onar daiteke egun adjektibo soiltzat ditugun zenbait hitz, *-i* morfema antzeman ahal zaienak, garai batean aditz partizipio gisa erabil zitezkeela²⁰. Partizipio-adjektiboak sortzeko morfema hori eta datibozko morfema gauza bera zirela edo bildu egin zirela pentsatzeko badira zenbait arrazoi. Lehena, sakoneko nozio semantikoari dagokionez, geroagoko *-ti* atzizkiak bezala, egoera aldaketa bat eta norabide bat iradokitzen dutela denek. Ematen du morfemak adierazten duen norabidea kulunkaria izan dela denboran zehar; *euria goiti beheiti egiten du* esaldian morfema berak abiapuntua eta norabidea adierazten dituen modu berean - hau da, “*euria goitik behera egiten du*”-, denboran zehar esango genuke aldaketak sumatzen direla²¹. Bestetik, begi-bistakoa da euren antzekotasun fonologikoa; are gehiago, talde horretan sartzen badugu partitiboan antzeman daitekeen *-(r)ik* ablatibo zaharra, **(r)i-ka* morfemetan bereiz litekeena, *-tik* kasu-markarekin fusionatu zena²². Lakarraren ustez, beste hizkuntza batzuetan gertatu izan diren gramatikalizazio prozesuei erreparatuz, aitzineuskarako “eman” aditzaren zentzua lukeen **nin* aditzetik eratorriak izan daitezke perfektiboko marka zaharra, datiboko marka eta partitiboaren oinarria (2008: 482). Multzo aditz egituretatik eratorririko morfema horiek, beharbada

hemen proposatzen dugun hipotesitik antzinagoko estadio batekoak izanik, bidea irekiko liekete *-ti* morfemaren fusioari. Amaitzeko, hizkuntza erromantzeekin kontaktuan euskarak izan duen bilakaerak ere pentsarazten digu datiboa eta partizipioa harremanean zirela.

- 41 Seguruena, froga argiena izan daiteke adizki perifrastikoetan aditz nagusiaren erroari, etorkizuneko morfema gisa, *-en* eta *-ko* atzizkiak itsasten zaizkiola, perpausaren beste ingurumen batzuetan genitibo eta leku-genitibo funtzioa betetzen dutenak hain zuzen²³. Gauza argia ematen du gaztelaniako *es DE venir* edo *ha DE hacer* eta euskarazko *etorriKO da* edo *eginEN/GO du* bezalako egituren paraleloak direla (cf. Padilla Moyano *apud* Santazilia 2013: 245). Kontuan hartzen badugu *etorriko* bezalako egitura bat, badirudi egitura hori sortu zenean, hiztunak ordurako ez zuela *-i* datiboa izan zitekeen zantzurik, egun “etorri” eta “egin” aditzen ordainak *to come* eta *to do* direla esango duen ingelesak hor datiboa edo norabidezko preposizio bat egon daitekeela antzemango ez duen modu berean.
- 42 Ingelesak eskaintzen digun paralelismo honek aditzera ematen du Europa mendebaldean Erdi Arotik gertatu ziren fenomeno linguistiko batzuen aurrean garela. Hizkuntza-eskualde berean gertatzen diren fenomenoek lagundu egingo digute ulertzen euskaraz gertatu bide zena. Ingeleseaz, adibidez, azaleko antzekotasuna dela medio, berranalisi gramatikalak eragin zuen adjektiboak datibozko osagarria hartzea *dear to him* bezalakoetan, eta XIII. mendearen bigarren erdian ezarri daiteke fenomeno hori (Fischer 2000: 17-25). Datiboak norabidea adierazteko duen nozio hori dela eta, norabidezko zentzu konkretu hori galduz lokatibotik denbora nozioa bideratzera iritsiko da datiboa, *joan* aditzarekin elkaturik. Aditza bera, aditz oso izatetik aditz laguntzaile izatera iritsiko da (*ibidem*: 287):
- I am going (to Hamburg) to visit my aunt
 - I am going to marry
 - I am going to like it
 - It is going to rain
 - I am going to go there
 - I´m gonna go
- 43 Antzerako fenomenoak suma dezakegu gaztelaniaz, *voy a* bezalako egituretan, edo euskaraz *-(er)a joan* bezalako perifrasiatan.
- 44 Datiboaren presentzia sumatzen da aditzaren erregimenari lotuta adberbioaren edo aditzaren aldien ingurumenean dauden beste hainbat elementutan. Esate baterako, esanguratsuak dira Euskaltzaindiaren gramatika perifrasi multzoen artean sartzen diren *-tzer* eta *-tzeaz* + izan/*ukan taldeak, aditz izenaz lagundurik eta apokopaturik daudela ematen duten²⁴ bestelako atzizkiez osatuak direnak. Lehenean, adlatibozko *-tzera* laburturik dagoela pentsatu izan da (cf. Euskaltzaindia 1991: 480) eta bigarrenean, aldiz, zilegi da pentsatzea datibozko *-tzeaz* dagoela atzean, izan ere, baditugu honelako apokopeen lekukotasunak, adibidez, *EGLU II* liburuan ageri den *-tzeaz* + egon perifrasi multzoaren honako adibide hau ematen da: *ingelesaren ikasteaz zeuden askok burutu dute bere gogoia* (Euskaltzaindia 1987: 468). Aspektu burutua ematen duen *-i* atzizkiak *-beharbada* aitzineuskararen ez zuen balio hori- eta, hizkuntza erromantzeekin kontaktuan sortuta, etorkizuneko aspektu burutugabea duen atzizkiak antzeko bidea jarraitu zutela pentsa daiteke. Aldera ditzakegu egitura horiek, frantsesezko *avenir* edo gaztelaniazko *porvenir* edo *devenir*²⁵ izen arruntekin, kontrako norabidea eta erdibidekoa adierazten duten preposizioez osaturik daudenak.

- 45 Norabidea adierazten duten kasu-marken dantza horretan, bestalde, euskalki batetik bestera diferentziak aurki genitzake. Ablatiboko edo genitiboko kasu-markak orokorrean arruntagoak diren ingurumenean, datiboa aurkituko dugu batzuetan; Euskaltzaindiaren gramatika lanetan ediren ditugu honelako adibideak: *elizari hurbil dago* (Euskaltzaindia 1991: 176) edo *mendiari goiti abiatu zen artzaina ardiek inguraturik* (*ibidem*: 233). Baliteke hor oinarri semantiko bat egotea, postulatu dugun atzizkien koaleszentziaren froga bat izatea, edo eta hizkuntza erromanikoetako egituren kalkoak izatea; hala gertatu dela dirudi *senarrari buruz bezalakoetan* (*cf. cap de*).
- 46 Halako koaleszentzia baten adierazgarri izan daiteke Italia hegoaldeko Molise eskualdean bizi den kroaziar gutxiengoaren hizkeran bost mendez italierekin izan duen kontaktuaren eraginez gertatzen den fenomeno. Eslavierazko kasu-markak indartu izan dituzte italiarako preposizioek. Batzuetan, eslavierazko preposizioa italiarazkoaren antzak moldatu du; adibidez, eslavierazko *do* adlatiboak italiarazko edutezko *di* preposizioarekin duen antza dela-eta orain preposizio horrek jabego harremanak bideratzen ditu. Horretarako, Heineren ustez, gramatikalizazio fenomenoetan orokortuta dauden joerak jarraitzen dira:
- The result is what is known technically as the Goal Schema [Y for/to X], according to which a possessive relation is established by using either a benefactive/dative or an allative marker linking the possessee and the possessor, *cf. English Secretary to the president* [...]. In choosing this particular schema, Molise Croatian speakers may have been influenced by the phonological similarity between the markers *di* of the model language and *do* of the replica language, especially since the former is pronounced locally as [dɔ]. But there may have been an additional, or perhaps alternative, phonological motivation: the Slavic speakers possibly took their ablative preposition **od* 'from' to be a morphonological equivalent of Italian *di* -a hypothesis that would be supported by the fact that **od* was subsequently lost. (Heine eta Kuteva 2005: 246)
- 47 Laburbilduz, hainbat zantzu daude latinezko preposizioek postposizioen lekua bete edo, gutxienez, euskarazko kasuen formarengan erakarpeneko indarra izan zezaketela pentsatzeko²⁶.

4. Kasu-markak: mailegu, edo aurreko egoera baten aztarna?

- 48 Orain arte zirriboratu dugun hipotesiaren arabera, beraz, euskararen zenbait kasu-markak latinekoekin duten antza, ausazko homofonia baino zerbait gehiago dirudiena, hein batean azal daiteke mailegutza edo interferentzia linguistiko baten bitartez. Hedakuntza horrek, ordea, badu hipotesi alternatibo edo osagarri bat: galde diezaiokegu geure buruari aurretik zer ote zegoen, beharbada baziren bestelako edo antzerako postposizio nahiz markak, hedakuntza hori erraztuko luketenak.
- 49 Josu Oregik, 1974an argitaraturiko artikulu batean, aztertu egin zituen euskal aditzak osatzen dituzten elementuak eta zenbait ondorio esanguratsutara iritsi zen. Batetik, harremanean ipini zituen zenbait aditzoinetan agertzen diren hasierako *e-* /*i-* aurrizkiak, eta izenordainetan ageri diren marka homofonoekin (*inor* / *nehor*) erlazionatu. Bestetik, adizki sintetikoetan orainaldian agertzen den *da-* morfema eta iraganeko *e-* marka ere erlazionatu zituen, eta flexioa sortu aurretik sortuak zirela proposaturik, oraina eta orain-eza bereizten zituen “aditz moduko bat” izango lirakeela gaineratu zuen. Hirugarren, adizkietan pertsonen eta kasuen zeukaten isla

aztertzerakoan, adizkietako markak izenordainekin erlazionatu eta diakronian aditzaren bilakaera bat proposatu zuen (Oregi 1974: 281). Traskek (1997), berriz, pertsona markek adizkietan duten hurrenkeraz, “dative-flag” delako *-ki-* artizkia aurretik baitoa, euskarak egun dukeen SOV hurrenkera barik, VO hurrenkera proposatu zuen. Ildo horretatik, tipologia holistikoaren arloan egin diren ikerketak kontuan izanik, Lakarra irakasleak (2018) harremanean ipini ditu hizkuntzako hainbeste elementu, hala nola aurretik aipaturiko aditzen ezaugarriak, izen/adjektibo hurrenkera, hitz erroen egitura silabiko kanonikoa, bokal/kontsonante kopurua, etab., aitzineuskararen tipologia egungoarena ez zela postulatzeko. Ezaugarri horiek aditzera ematen dute, egungo euskara eranskaria ez bezala, aitzineuskara garai batean hizkuntza isolatzailea zela. Beste hizkuntza batzuetan eman diren gramatikalizazio fenomenoei erreparatuz, aditzaren inguruan biltzen diren zenbait morfemaren eta kasu-marka zaharrenen *-alegia*, singularreko mugatzailearen gainean eraiki ez direnen- jatorrian aditzak direla proposatu du. Adizkietan biltzen diren marka diferente horien jatorria azaltzeko, bi aditz edo gehiagok osaturiko hainbat hizkuntzako multzo-aditzak gogoan izan ditu.

50 Artikulu honetan azertu ditugun kasu-markei dagokionez, Lakarrak harremanean jarri ditu, lehenik, aditz komitatiboa (*ekhin*), moduzko adberbialen gramatikalizazioa (*-ki*), denborazkoena (*ostegunarekin*) eta, komitatiboak eta datiboak duten erlazioak bideratuta, adizkietan agertzen den marka (*dator-ki-gu*). Aditz komitatiboa delakoa marka horien guztien oinarrian dagoela funtsatzeko, egokitasun formalaz gain, kontuan izan du semantikoki ere suma daitekeela erlazio bat (*apud Gorrotxategi et al.* 2018: 163). Esanguratsua iruditzen zaigu Schuchardtek soziatibo edo komitatiboaren jatorrian ezartzen zuen postposizioko *kide* horri uko egiten zaiola teoria honetan. Gainerako kasu-marketan ere sumatu izan du forma bereko partikulen artean erlazioa, eta jatorrian aditz bat. Adlatibozko atzizkiari dagokionez, jatorrian ez da *-ra* atzizkirik, baizik eta datiboko *-ri* eta genitiboko *-re* atzizkietan bezala, epentesiko *-r-* bat eta *-a* atzizkia. Bestetik, *da* aurrizkia eta *-ra* atzizkia gramatikalizazio-sare berekotzat jotzen ditu Lakarrak, biak lezozkeelarik **dar* aditzaren erroetik, honako bidea jarraituta **dar > da- > -t/-a > -a*, eta morfema hori izango litzateke ematen dituen kopula, juntagailuaren bigarren zatia, leku-kasu mugagabeetako hiperkarakterizazioak eta, amaitzeko, pluraleko marketan ageri den morfema (*ibidem*: 141). Bestetik, *-at* atzizkia **dada* pleonastiko batetik abiatuta berreraikitzen du (*ibidem*: 152). Instrumentalari dagokionez, **-zV* berreraikitzen du, pluraleko *-za* markarekin erlazonaturik. Jatorrian **zan* aditza dagoela postulatu du (*ibidem*: 128). Amaitzeko, Lakarrak harremanean ipini ditu, batetik, datiboko aditz laguntzailea, datibo etiko delakoa, partitiboa, prosekutibo/ablatiboa eta adjektiboetako marka, denen jatorrian legokeelarik **din* aditzaren erroa, *-ti* ematen duena (*ibidem*: 126). Bestetik, partizipioko *-i* atzizkiak, datiboko balioa ematen diolarik, eta izen sintagmako datiboak, biek ere jatorrian **nin* aditza izango lukete (*ibidem*: 142). Aditz erro zaharretan (*e-thor-i*) ageri den *e-* aurrizkia, berriz, aitzin-lokatibo bat litzateke, *e-/i* amalgamak aditzera ematen du noizbait antzeko balioa izan zezaketela (*ibidem*: 137). Aurrizki horrekin loturik leudeke zenbait morfema: kasu-markak lotzeko partikula epentetikotzat jo izan diren *-e-* batzuk, genitiboko marka zaharra, edo **-he-ta* amalgaman ageri den lehen elementua. Denak ere *hertsi* bezalako aditz batean ediren dugun **her* aditzaren gramatikalizaziotik etorririko lirateke (*ibidem*: 134-135)²⁷.

51 Lakarraren barne-berreraiketa bikainak, txukunki azaltzen dituelarik kasu-marka ilunenak, gure ustez badu akats bat: formalki akasgabe izatea. Entitate foniko txikia

duten partikuletatik abiatzeaz, edo zuzenean lekukotasunik utzi ez duten formak proposatzeaz aparte, badirudi ez dela zalantzarako eta ziurgabetasunerako tartetik, ebidentziak hain daude ongi ehunduta. Aurretik erabil zitezkeela ere ez genekien ereduez baliaturik, beste hizkuntza batzuetako fenomenoak erreferentzia gisa maisutasunez erabilia, egiantzekotasun handiko teoria eraiki du. Baina beharbada horixe kritikatu dakioke, daukan erregularatasuna eta perfekzioa. Hizkuntza indoeuoparren edo uralikoen bilakabidea ikusirik, euskararen balizko izaera isolatzaile batera hurbiltzen diren fenomenoak ez lirateke herenegungo kontuak, baizik eta Lakarrak berak dioenez, seguruenik milaka urte atzera egin beharko genuke atzerantz. Adibidez, lekuzko hitz edo partikula batetik sortu bide zen ergatiboak berak, edo pertsona markarik gabeko adizkiak zeuzkan egoera batek ere, hizkuntzaren estadio irudikagaitzetera garamatza. Litekeena den arren, handik hona bokalak egonkor mantendu direla irudikatzea ere zaila egiten da.

- 52 Idatzi honetan bildu egin dira morfema flexibo nahiz deribatiboen inguruan aurretik egin izan diren proposamen eta zehaztapen ugari. Azken bi mila urtean sumatu izan da alboko hizkuntzek euskararengan izan duten eragina: maileguak, mailegu horien higadura eta euskalkietako polimorfismoa, kalko semantikoak, alboko hizkuntzen morfemen erakarpen indarra, itzulpengintzak eta idazkerak hizkuntzan dituen ondorioak... zilegi da horren urrutiko jatorria ematen zaien morfema batzuk halako faktoreen eraginik gabe hain modu gardenean guregana iristea?
- 53 Gorago aipatu dugu preposizioek igarobidea errazturik zutela, aurretik bazirelako batzuetan antzeko morfemak eta erabilerak. Trask harritzen zen ez zuela euskaraz indoeuoperazko eragin gramatikalik antzematen, “Basque appears to show no trace of any ancient grammatical influence from Indo-European [...] it is slightly surprising to find no grammatical evidence at all” (1997: 373). Tovarrek mintzaera indoeuoparretan hedatua dagoen *-ko* eratorpen-atzizkia *-latinezko andronicus* edo grezierako *Panathinaikos* hitzetan ageri dena, esaterako- eta euskarazko *-ko* kasu-marka antzinako *Sprachbund* baten aztarnatzat jo zituelarik, Traskek halako eremua postulatzeke ebidentzia gehiago beharrezko zirela zeritzon²⁸. Agian, latinezko maileguk hizkuntza zeltikoetakoak estali bide zituzten legez, baliteke hemen latinezko mailegutzat jo ditugunak aurretik bazeuden kasu-markak estaltzea.
- 54 Gorago, zuhurki, ez gara ausartu hungarierazko kasu-marken jatorriaz ezer ere esaten, baina horrek ez du esan nahi ezagutzen diren datuek euskaraz gerta zitekeenaren ideiarik eman ezin digutenik. Euskararenarekin alderaturik, hungarieraren berreraiketa linguistikoak abantaila garrantzitsu bi ditu. Batetik, familia bereko urrutiko hizkuntzen arteko konparazioa zilegi da eta elkarren arteko aldaketen garaiak ezartzeko aukera dago, denboran oso atzera eginda. Bestetik, badira hungarierazko Erdi Aroko testu luzeak, beraz, euskararenak baino zenbait mende zaharragoak diren lekukotasunak daude, eta horrek hizkuntzaren eboluzioa behatzea zilegi egiten du.
- 55 Euskaraz bezala, suposatu izan da hungarieraz morfema gramatikalak leku-denborazko kasuak baino askoz ere zaharragoak direla; aitzin-hizkuntzaren periodo uralikoan ezartzen da haien jatorria. Leku-denborazko kasuei eta postposizioei dagokienez, diferentziak sumatzen dira hizkuntzen artean, eta garai diferenteetan sortu direla antzematen da. Ikusita badirela kasu-markarik ez daukaten adberbioak, antzinakoak diruditenak, ikerlari batzuek uste izan dute kasu-markak geroagokoak izango zirela, “Seeing this, some assumed that the proto-language invariably had unmarked adverbs, and the case suffixes came into being at a subsequent stage of development in PU”,

baina halako zerbait postulatzea aurreindoeuroperaren atzizkirik gabeko garaia irudikatzea bezain zaila izan liteke (Hadjú 1972: 42).

- 56 Hizkuntza fino-ugriarren artean sumatzen diren diferentziek kasu-marken adina finkatzea ahalbideratzen dute. Hungarierazko lekuzko kasu-marka eta postposizioak hiru koordenada argiren inguruan biltzen dira; Károlyren esanetan, galdera izenordain hauek erreferentzia gisa balio dezakete: *hol?* “non?”, *honnan?* “nondik?” eta *hová?* “nora?”. Hiru talde horietan biltzen dira lekuzko kasu-marka nagusiak (oinarrizko noziotik gertuago) eta postposizioak (modu zabalagoan edo arinagoan). Koordenada horietan biltzen diren morfemak hizkuntzaren bilakabidearen etapa diferenteetan koka daitezke: *-tt*, antzinako lokatiboa, garai fino-ugriarrear, *-l* ablatiboa, ugriarrear, eta *-á/é* latiboa, garai uralikoan (cf. Károly 1972: 107). Kanpotik begiratuta, deigarria da lokatiboan, ez galdera izenordainek, ezta postposizioek ere, ez dutela kasu-markaren atzizki bera. Károlyk kasu-markaren *-n* morfema antzinako lokatiboko atzizkitzat jotzen du (*ibidem*: 108), Sauvageotek, aldiz, *-n* daroan kasu-marka antzinako *-*na/*nä* atzizkia dela dio, objektuen gainean kokapena, denbora eta egiteko modua adieraziko lituzkeelarik (1971: 62)²⁹. Atentzioa ematen du, bestalde, helburua adierazten duen hungarierazko morfema, antza, ez dela agertzen beste hizkuntza finougriarretan, baina garai uralikoko morfematzat jotzen da. Hungarierako egungo egoerara iristeko izan duen bilakabidea bitxia da, Sauvageotek honako bidea proposatu zuen: *-*k > -χ > -i, -ü, -u > bokal luzea* edo, antzinako *-*s* morfema latibo fino-ugriar batetik abiatutik, aurrekoaren antzeko bilakaera bat. Bestetik, atzizki hori zeukan postposizio batek emango luke egungo kasu-marka; XI. mendeko *rea* postposizioak kasu-markaren funtzioak hartuko zituen eta mende bukaerarako konfirmatuko litzateke erabilera hori (*ibidem*: 65-66).
- 57 Hizkuntzaren beste arlo batzuetan gertatu diren soinu aldaketak ezagutu gabe, berreraiketak bitxi xamarra dirudi; ematen duenez, hizkuntzalariek hungarieraren kasu-markak familia bereko gainerako hizkuntzen jatorri komunetik abiatuta berreraikitzen dituzte eta dibergentziak aurretik zegoen egoera baten eboluzioaren bitartez azaldu. Hungarierak printzipioz ez du maileguan harturiko morfema partekatuen hipotesia indartzen. Edozelan ere, irekirik utzitako galdera batek erantzunak baino balio handiagoa izan dezake.
- 58 Latinaren, hizkuntza erromanikoen eta euskaren kontaktuaren izaera ulertzeko, esanguratsuak izan daitezke hizkuntza baltikoen eta finikoen arteko kontaktuak sortu dituen fenomeno batzuk. Hiru mila urte baino gehiagoko harremanak hizkuntza horien kasu-sisteman eragin handia izan du, kasu-markek elkarren antza izan arte. Adibidez, lituanieran kasu-marka gehienek protoindoeuroperan jatorria duten arren, lituaniera zaharrean sortu ziren ilatibo, adlatibo eta adesiboari eragin uralikoa sumatzen zaie (Johanson 2009: 500). Batzuetan, elkarren arteko antzekotasunak hirugarren hizkuntza baten eraginez sortu dira:

In this way, the Finnish postposition *kautta* and the Latvian preposition *caur*, both locative path markers meaning 'through, via,' have developed use patterns as instrumental/means/cause markers presumably from the influence of the Bible and other translations from languages such as German and Swedish (Accordingly, it comes as no surprise that the use of Latvian *caur* as a means or cause, being interpreted by Nau (1995: 145) as a replication of the uses of the German path preposition *durch* 'through,' is almost entirely restricted to the written language, even if this use pattern is not accepted as conforming to the standard language. (Heine eta Kuteva 2005: 250)

- 59 Aztertu dugu euskarazko latinetik preposizioak mailegaturik jaso eta kasu-marka gisa hedatzearen hipotesia. Ondoren, bigarren hipotesi ordezkoko edo osagarri bat proposatuko dugu. Pentsa daiteke euskarazko ditugun kasu-marka horiek zaharragoak direla eta latinezko preposizioen antzak aurretik datorren oinarria duela.
- 60 XX. mendearen hasieran indoeuropar familiako hizkuntza hil baten aztarnak topatu zituzten Tian Shan eta Kun Lun mendikateen artean zabaltzen den Tarim arroan, Taklamakan basamortuaren inguruan. Kristo ondorengo VI. eta VIII. mende arteko eskuizkribuek zalantzan jarri zuten *centum-satem* isoglosen bereizketa. Tokhariera izena eman zitzaion hizkuntza indoeuropar honi aldaera bi antzeman zaizkio: A izenekoa, ekialdean, eta B izenekoa, mendebaldean. Aurkikuntza honek indoeuropar hizkuntzen historiarekiko interesa berpiztu du. Esanguratsua da, adibidez, nola tokharierako zenbait kasu-marka Europako hizkuntza indoeuroparretako preposizioekin harremanean jarri diren. Horrela, A tokharierazko *-am* eta B tokharierazko *-ne* lokatiboak kasu-markak prusiera zaharreko *na* preposizioarekin edo eslavierako *na* aurritzikiarekin erlazionatu dira (aurreindoeuropeerako **no*); B tokharierazko *-â* perlatiboak morfema (prototokharierazko **-ac*) latinezko *ad* preposizioarekin jarri da harremanean; edo, amaitzeko, A tokharierazko *-ac* eta B tokharierazko *-ś(c)* adlatiboak kasu-markak (prototokharierazko **-cä* < **-Te* edo **-Ti* [T edozein horzkari delarik]) grezierazko *δε* eta *θι* preposizioekin erlazionatu dira (Kulikov 2009: 443).
- 61 Bide horri jarraituta, azter dezagun euskarazko kasu sisteman integratu diren zenbait elementu. Leku-denborazko kasuetan ageri den *-ta-* artizkia toponimiako jatorri latindar edo erromantzeko *-etum* atzizkitik datorrela arrazoizko hipotesia zirudien (cf. Trask 1997: 206) -adibidez, gaztelaniaz *avellaneda* eta euskaraz *elordieta* emango lituzke-. Kontuan izanik Erdi Aroko testuetan enklitiko honen hasieran zenbait toponimotan *-h-* agertzen dela eta txistukariaren ondoren *Amezket*a bezalako toponimoak aurkituko ditugula, kontsonantea bokalarrean erori eta txistukariaren fortizioa eman dela pentsatu izan da (Lakarra *apud* Gorrotxategi *et al.* 2018: 117). Honek adierazi lezake ez dela latinezko atzizkia mailegatu, baizik eta euskararen ondare zaharreko elementua dela. Gramatikalizazio primario bisilabiko edo polisilabikorik ez delarik aurkitzen, Lakarrak *-heta*, *-eta*-ren aldaera arkaikotzat dauka, eta gorago esan bezala morfema zaharragoen amalgama dela uste du (**he* + *-ta*) (*ibidem*: 127), *da* kopularekin lotua (*ibidem*: 137). Edonola ere, esanguratsua da arazorik gabe onartua zegoela latinetik maileguaren hipotesia; hein batean, seguruenik, errazago onartuko litzatekeelako eratorpen-morfema baten mailegutza, arazo handirik gabe euskarazko atzizki deribatiboetan integratu diren beste hainbat kasu argiren lekukotasuna dugulako. Ipin izan dira harremanean, bestetik, pluraleko marka *-k* eta toponimoetan ageri den *-aga* morfema, *Gaztañaga* bezalakoetan ageri dena (M. Albert Léonek proposatu zuen lehenik erlazio hori, cf. Altuna eta Azkarate 2001: 44). Lakarrak harremanean ipini izan ditu *Urkitza* edo *Artaza* bezalako toponimoetan ageri den pluraleko *-tza* morfema, prolatiboan (*-tzat*) ageri den *-tza-* artizkia eta aditz izenetako *-tze* atzizkia (cf. 2008: 484). Morfema honetan ere, latinean jatorria duten atzizkiek euskarazkoarekin antza dute (adibidez, *vaqueriza* bezalako izen batean, bai orokorrean behiek harremana duenaren adieran, bai behiak biltzeko lekuaren adieran). Schuchardtek, aldiz, harremanean ipini zituen *-ti* kasu marka eta zuhaitz multzoetan ageri den *-di* morfema (1947 [1923]: 51), Lafonen proposamenaren ostean apur bat bazterturiko hipotesia. Latinezko morfemekin parekotasuna duen morfema lokatibo-pluralgile horiek eta antzerako morfemek

dauzkaten funtzio eta balio semantikoek, aditzera ematen dute euskarak kanpoko elementuak egokitu litzakeela hizkuntzak aurretik zeuzkan joera batzuei jarraituta.

- 62 Schuchardtek harremanean ipini zituenean landaredian agertzen den *-di* morfema eta egungo ablatibokoa, dirudenez ez zuen kontuan izan toponimian gordetzen dela atzizki beraren aldaera bat, *-doi* delakoa, garai bateko telebistako esatari batek zeukan *Amestoy* abizenean ageri dena, edo Jakatik gertu dagoen *Alastuey*³⁰ herrian suma daitekeena. Beharbada, harremanean jar genitzake indoeuroperarako postulatu den *-oy* datiboa eta euskaraz zuhaitzak biltzeko erabiltzen den atzizkia. Pentsa genezake aurretik erabiltzen zen atzizki batek, berezkoa nahiz mailegatua zenak, hizkuntzaren periferian arrastoa utzi duela. Alderdi semantikoari dagokionez, ez da zaila irudikatzea banakoak taldetan biltzeko nozioa eta transferentzia bideratzea atzizki berean elkarturik egon daitezkeela. Hor ditugu, urrutiegi joan gabe ere, Lizarrerritik gertuko *Ameskoak*. Nahiko gauza argia dirudi toponimoaren atzean *amez-ko-a* dagoela, zehazki ez dakigun arren toponimoa zuhaitz bakar batek ala taldeak osatzen duen. Badirudi ametzek osatzen duten basotik datorrela toponimoa, eta ez ametz bakar batetik, gaztelaniaz normalean “donde el rebollo” eta halakoen parekoak aurkituko ditugun arren (cf. Salaberri 2008: 725-743)³¹. Leku-genitiboaz osaturiko beste adibide bat ematearren, aipa genezake lurraldeari izena ematen dion *gipuzkoa*³².
- 63 Toponimoetan ageri diren atzizkiek kasu-marketara izan duten hedapenaren beste adibide bat izan daiteke *-ka* atzizkia. Batetik, adberbioak sortzeko balio du, “modua” adieraziz *-adibidez*, *zeharka* edo *korrika-*, bestetik, atzizki-artizki gisa ageri zaigu, Landucciren *lecutica lecura* edo egungo *oraindikan* dialektalean adibidez. Gehienbat mendebaldean ageri den *-(i)ka* atzizkiari³³ dagokionez, Salaberri latinezko eratorpen-atzizkiarekin harremanean ipini du; *terra* edo *villa* bezalako termino femeninoa datekeen toponimo eliptiko bati lagunduta, posesioa adierazten duen atzizkia izango litzateke, arruntean jatorri latindarreko antroponimo bati lotuta ageri baita (cf. Salaberri 2011: 149). Zentzu posesibo-lokatibo hori dela medio, flexiora pasatzea zilegi da. Nolanahi ere, galde diezaiokegu geure buruari ea aurretik bazegoen antzeko atzizkirik, “natiboa” nahiz mailegatua, hala nola zeltierarentzako berreraiki den **-akos* atzizkia edo toponimoetan ageri den *-aga* ezaguna.
- 64 Toponimoetatik kasu-marketara igaro zitezkeen atzizkiekin amaitzeko, agian beste horrenbeste esan dezakegu instrumentaleko *-z* atzizkiak. Gorago ikusi dugu euskarazko kasu-marka latinezko genitiboarekin harremanean jar daitezkeela, baina baliteke aurretik zegoen antzeko morfema baten jarraipena izatea. Euskalki batzuetan agertzen den *-taz* aldaerari dagokionez, *-tza-* artizkia toponimoetan ageri den *-tza* morfemarekin erlazionatu da. Toponimiako morfemak ez du beti pluraleko adiera bat, Salaberriren hitzetan, “digo 'locativo-abundancial' porque está claro que en toponimia en ocasiones, en nombres como *Beintza* (N) o *Gaintza* (G, N) es meramente locativo, a pesar de ser abundancial en voces del léxico común” (2011: 146).

5. Laburbilduz, kasualitatezko homofoniak?

- 65 Iruditzen zaigu idatzi honetan aurkeztu diren datuek aditzera ematen dutela antzekotasuna sumatu zaien morfema flexibo nahiz deribatiboetan nolabaiteko erregularatasuna sumatzen dela euskararen eta alboko hizkuntzen artean, dela erromatarrak etorri aurretik, dela euskara latinarekin eta bere oinordekoekin kontaktuan izan den garaitik aurrera. Maila fonikoan dauden antzekotasunak elkartzen

baldin baditugu morfosintaxian nahiz semantikan sumatzen direnekin, ausazko konkordantzien posibilitatea txikia dela esan genezake. Hizkuntzalari hungariarrek, ikusirik hainbat morfemetan -batez ere aditz-jokoan sartzen direnetan- hizkuntza uralikoen eta alboko hizkuntz familia nagusien artean dauden antzekotasunen erregularitasuna, Asian zegoen *Sprachbund* bat proposatu izan dute; familien arteko harremana azalera handi batean elkarrekin bizi ziren herrien arteko kontaktuan oinarrituko litzateke. Ausazko konkordantziaren indizeak ezdeusak dira, “a chance agreement of the Uralic morphemes with the morphemes of the other language families is of 0.001 to 0.015. The indices suggest that prehistoric connections among the Uralic, Altaic, Indo-European, Chukchee, Kartvelian, and Hamito-Semitic languages can be asserted with a high degree of probability” (Hadjú 1972: 48).

BIBLIOGRAPHIE

- ARTIAGOITIA, Xabier eta Joseba A. Lakarra (arg.) (2008). *Gramatika jaietan Patxi Goenagaren omenez*. Bilbo: EHUKo argitalpen zerbitzua, “Julio Urkixo” Euskal Filologi Mintegiaren urtekariaren gehigarriak, LI.
- ALTUNA, Patxi, eta Miren Azkarate (2001). *Euskal morfologiaren historia*. Donostia: Elkarlanean.
- AZKUE, Resurrección María (1969 [1922-1923]). *Morfología Vasca*. Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca.
- BENKÖ, Loránd eta Samu Imre (arg.) (1972). *The Hungarian Language*. Haga eta Paris: Mouton.
- de RIJK, Rudolf (2008). *Standard Basque: a Progressive Grammar*. Massachusetts: MIT Press.
- ECHENIQUE, María Teresa (1987). *Historia lingüística vasco-románica*. Madril: Paraninfo.
- EUSKALTZAINDIA (1991 [1985]) *Euskal Gramatika Lehen Urratsak I*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- , (1987). *Euskal Gramatika Lehen Urratsak II*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- FISCHER, Olga; et al. (2000). *The Syntax of Early English*. Cambridge: Cambridge University Press.
- GARATE, Gotzon (1988). *Erdarakadak. Euskaraz ongi mintzatzeko hiztegia. Zazpi probintzietako adibideak*. Bilbo.
- GORROTXATEGI, Joakin, Iván Igartua eta Joseba A. Lakarra (arg.) (2018). *Euskararen Historia*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Agitalpen Zerbitzu Nagusia.
- HAASE, Martin (1992) *Sprachkontakt und Sprachwandel im Baskenland: die Einflüsse der Gaskognischen und Französischen auf das Baskische*. Hamburg: Buske.
- , (1997). “Gascon et basque: bilinguisme et substrat”, in *Sprachtypologie und Universalienforschung* 50, 3 (189-228).
- HADJÚ, Péter (1972). “The Origins of Hungarian”, in Benkő, Loránd eta Samu Imre (arg.). *The Hungarian Language*. Haga eta Paris: Mouton. (15-48).
- HASPELMATH, Martin (2009). “Lexical borrowing: concepts and issues” in *Loanwords in the world's language: A Comparative Handbook*. Haspelmath eta M. Tadmor Uri (arg.), Berlin: Mouton de

- Gruyer, (35-54). On-line: <https://www.researchgate.net/profile/Martin_Haspelmath/publication/279973916_Lexical_borrowing_concepts_and_issues/links/5655dd7308ae1ef9297950d9/Lexical-borrowing-concepts-and-issues.pdf>
- , eta Andrea D. Sims (2010 [2002]). *Understanding Morphology*. Understanding Language Series. Bernard Comrie, Greville Corvet (arg.) (2. ed.) Londres: Hodder Education (Hachette UK). On-line: <<https://arkitekturadellenguaje.files.wordpress.com/2012/12/understanding-morphology-second-edition.pdf>>
- HEINE, Bernd, eta Tania Kuteva (2002). *World Lexicon of Grammaticalization*. Cambridge: Cambridge University Press
- , eta Tania Kuteva (2005). *Language Contact and Grammatical Change*. Cambridge: Cambridge University Press.
- , (2009). “Grammaticalization of Cases”, in Malchukov, Andrej eta Andrew Spencer (arg.). *The Oxford Handbook of Case*. New York: Oxford University Press (458-469).
- HUALDE, José Ignacio; Ortíz de Urbina, Jon, et al. (2003). *A Grammar of Basque*. Berlin eta Boston: Mouton Grammar Library.
- IGARTUA, Ivan (arg.) (2012). *Euskara eta inguruko hizkuntzak historian zehar*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzua.
- JOHANSON, Lars (2009). “Case and Contact Linguistics”, in Malchukov, Andrej eta Andrew Spencer (arg.). *The Oxford Handbook of Case*. New York: Oxford University Press (494-501).
- KASTOVSKY, Dieter (1991). *Historical English Syntax*. Berlin: Tiel (Mouton de Gruyter).
- KÁVOLY, Sándor (1972). “The Grammatical System of Hungarian”, in *The Hungarian Language*. Benkő, Loránd eta Samu Imre (arg.). Haga eta Paris: Mouton. (85-170).
- KOROMPAY, Klára (1984). “Aspects structuraux de la déclinaison en ancien hongrois tardif”, in *Annales Universitatis Scientiarum Budapestinensis de Rolando Eötvös nominatae. Sectio Linguistica*, tome xv. Budapest (135-140)
- , (1998). “La constitution d’un système casuel: le cas du hongrois”, in B. Caron (arg.), *XVIe Congrès International des Linguistes, Paris, 20-25 juillet 1997*, CIL16. Frantzia: CNRS.
- KULIKOV, Leonid (2009). “Evolution of case systems”, in Malchukov, Andrej eta Andrew Spencer (arg.). *The Oxford Handbook of Case*. New York: Oxford University Press (439-457).
- LAFON, R. (1999 [1948]). “Sur les suffixes casuels -ti et -tik”, in *Vasconiana Iker-11*. Bilbo: Euskaltzaindia, (199-207). [(1948) *Eusko-Jakintza II*, (111-150)]
- LAKARRA, Joseba Andoni (2008a). “Vida con/y libertad: sobre una coordinación arcaica y la autenticidad de 'Urthubiko alaba'”, in *ASJU* n° 42 (83-100).
- , (2008b). “Aitzineuskararen gramatikarantz (malkar eta osinetan zehar)”, in *Gramatika jaietan Patxi Goenagaren omenez*. Artiagoitia, Xabier eta Joseba A. Lakarra (arg.). Bilbo: EHUko argitalpen zerbitzua, “Julio Urkixo” Euskal Filologi Mintegiaren urtekariaren gehigarriak, LI (451-491).
- , (2013). “Root Structure and the Reconstruction of Proto-Basque”, in *Basque and Proto-Basque. Language-Internal and Typological Approaches to Linguistic Reconstruction*. Mikrolottika. Minority Language Studies. Vol. 5. Martínez-Areta (arg.). Frankfurt am Main: Peter Lang Edition. (173-223).
- , (2023). “Orotariko Kasu Markak eta 'MAE ohiak': ustezko bitxikerien garrantzia”. In Lindemann, D. (arg.) *Miren Azkarateri esker onez*. Leioa: EHU Argitalpen Zerbitzua.

- MALCHUKOV, Andrej eta Andrew Spencer (arg.) (2009). *The Oxford Handbook of Case*. New York: Oxford University Press.
- MARTÍNEZ-ARETA, Mikel (arg.) (2013). *Basque and Proto-Basque. Language-Internal and Typological Approaches to Linguistic Reconstruction*. Mikroglottika. Minority Language Studies. Vol. 5. Frankfurt am Main: Peter Lang Edition.
- MATA INDURÁIN, Carlos (2003). *Navarra-literatura*. Iruñea: Gobierno de Navarra, Departamento de Cultura y Turismo. Institución Príncipe de Viana.
- MATRAS, Yaron eta Jeanette Sakel (arg.) (2007). *Grammatical Borrowing in Cross-Linguistic Perspective*. Berlin eta New York: Mouton de Gruyter.
- MONOULE, Celine (2008). “Sintaxi diakronikoa eta aditz multzoaren garapena: Inperfektibozko perifrasiaren sorreraz”, in *Gramatika jaietan Patxi Goenagaren omenez*. Artiagoitia, Xabier eta Joseba A. Lakarra (arg.). Bilbo: EHUko argitalpen zerbitzua, “Julio Urkixo” Euskal Filologi Mintegiaren urtekariaren gehigarriak, LI. (585-605)
- MITXELENA, Koldo [Luis Michelena] (1985 [1961]) *Fonética Histórica Vasca*. Donostia: Publicaciones del Seminario Julio de Urquijo, eta Gipuzkoako Foru Aldundia.
- , (1988). *Sobre Historia de la Lengua Vasca I*, (121-137). [(1972) “Nota marginal sobre la huella latina en la lengua vasca” in *Fontes Linguae Vasconum IV*, (5-25)]
- MUJICA URDANGARIN, Luis María (1982). *Latina eta erromanikoaren eragina euskaran (euskal lexikoaren azterketa bideetan)*. Donostia: Sendoa.
- NIEDERMANN, Max (1959). *Précis de phonétique historique du latin*. Paris: Klincksieck.
- RUBIO FERNÁNDEZ, Lisardo eta Tomás González Rolán (1985). *Nueva gramática latina*. Madril: Coloquio.
- SALABERRI ZARATIEGI, Patxi (2008). “Satznamen direlakoan inguruan. Erlatibozko perpausetan jatorri duten toponimoak aztergai”, in *Gramatika jaietan Patxi Goenagaren omenez*. Artiagoitia, Xabier, Joseba A. Lakarra (arg.). Bilbo: EHUko argitalpen zerbitzua, “Julio Urkixo” Euskal Filologi Mintegiaren urtekariaren gehigarriak, LI. (725-743).
- , (2011). “Sobre el sufijo occidental *-ika* y otras cuestiones de toponimia vasca”, in *Fontes Linguae Vasconum*. XLIII (139-176).
- SANTAZILIA, Ekaitz (2013). “Noun Morphology”, in *Basque and Proto-Basque. Language-Internal and Typological Approaches to Linguistic Reconstruction*. Mikroglottika. Minority Language Studies. Vol. 5. Martínez-Areta (arg.). Frankfurt am Main: Peter Lang Edition. [223-283]
- SAUVAGEOT, Aurélien (1971). *L'édification de la langue hongroise*. Publications de la Faculté des lettres et sciences humaines de Paris-Sorbonne. Série “Recherches”, tome 61. Paris: Éditions Klincksieck.
- SEGURA, Santiago (2007 [2004]). *Gramática latina*. Bilbo: Universidad de Deusto.
- SCHUCHARDT, Hugo (1947 [1923]). *Primitiae Linguae Vasconum*. Salamanca: CSIC.
- TRASK, R. L. (1997). *The History of Basque*. Routledge.
- URGELL, Blanca (2006). “Para la historia del sustantivo verbal vasco”, in *Studies on Basque and Historical Linguistics in honor to R. L. Trask – Ikerketak euskaralaritzaz eta hizkuntzalaritza historikoaz. Larry Trasken oroitzapenetan*. Lakarra, J. A. eta J.I. Hualde (arg.). ASJU 40 1/2 (921-948).

URRUTIA CÁRDENAS, Hernán (1995). “Morphosyntactic features in the Spanish of the Basque Country”, in Silva-Corvalán, Carmen (arg.) *Spanish in four continents: Studies in language contact and bilingualism*. (243-259).

---, eta Manuela Álvarez Álvarez (2001). *Esquema de morfosintaxis histórica del español*. Bilbo: Universidad de Deusto.

VÄÄNÄNEN, Veiko (1968). *Introducción al latín vulgar*. Madrid: Gredos.

NOTES

1. Hungarieraren historia ezagutzeko erabili ditugun lanak, Loránd Benkó eta Samu Imren irakasleek argitaraturiko *The Hungarian Language* eta Aurélien Sauvageotek idatzirik *L'Édification de la langue hongroise*, duela berrogeita hamar urteko lanak izanik, agian ez dute jasotzen hungarieraren historiaren ikerkuntzan egin diren azken mende erdiko aurrerapenak. Zoritxarrez, Klára Korompay hungarieraren historialariak jakinarazi digunez, azken aldian ez da argitaratu Europako hizkuntza ezagunenetan -ingelesez eta frantsesez, bederen-hungarieraren historiari buruzko sintesi lanik.

2. Hungarieraren bilakabide historikoak baditu euskararekin beste antzekotasun batzuk. Latinetiko itzulpenetan, beste adibide bat ematearren, hungarierazko perpauseko elementuen ordena aldatu eta estutu egin zuten Erdi Aroko itzultzaileek. Ez dugu galdegaia aditzaren aurretik aurkituko, itzulpenek hitzez hitzeko ordena jarraitzen baitute. Aditz laguntzailea ere predikatuaren alde nominalaren atzean agertuko da itzulpenetan (cf. Kávoły 1972: 135). Antzekotasun bitxia, hala ere, artikuluaen sorrera da, euskaraz hizkuntza erromantzeen eraginari egotzi zaiona, baina hungarieraz ez daukana -agerian behintzat- sorrera eragingo duen kontaktuzko hizkuntzarik. Hizkuntza fino-ugriarretatik, hungarierak eta mordovierak baizik ez dute artikulua, lehenak izenaren aurretik *-a haz*, “ha etxe”, bizkaierazko *ha etxearen* antzera-, bigarrenak, izenaren atzetik, euskaraz orokorrean egiten den moduan. Hungarieraren historiari arduratu direnen ustez, funtzio anaforikoa zuen erakusle batetik sortu zen artikulua, euskaraz gertatu bide zenaren antzera, baina printzipioz ezin zaio latinari egotzi eragin hori, eta hizkuntza eslaviarrek ere ez dute artikulua zehazturik. Hungarieraren historialariak intrigaturik utzi ditu fenomeno honek, “Cette situation est curieuse car les originaux latins ne suggéraient nullement l’emploi d’un article, bien qu’en certaines circonstances, les textes médiévaux n’aient pas dédaigné d’employer *ille, illa, illud* presque comme un article. Il faut donc chercher ailleurs l’inspiration qui a déclenché la genèse de l’article en hongroise” (Sauvageot 1971 : 162). Artikulu zehaztugabea *egy* “bat” zenbatzailearen bitartez egiten da. Euskaraz bezala, erabilera hori berriagoa da. Bistan da euskaraz ere garai hori mugarria izan zela; adibidez, mugatzailearen gainean eraikitzen diren kasu-markak IX.-X. mendeen ondorengoak bide dira, “deklina-bide indefinitua” litzatekeelarik zahar eta ilunena (cf. Gorrotxategi et al. 2018 : 132).

3. Koldo Mitxelena, María Teresa Etxenike edo Julio Caro Baroja bezalako epaimahaikide ospetsuek onetsirik doktorego-tesi batetik abiatzen da Mujikaren proposamena (cf. Mujika 1982 : 18). Horrek ez du esan nahi, nolana ere, epaimahaikideek proposamen hori onartzen zutenik.

4. Euskal gramatiketan erabili izan den kasu-markaren izendapena erabili dugu, beharbada ingelesez erabiltzen den *comitative* delakoa ere egokia zatekeen arren. Kontuan izan behar dugu, edozelan ere, kasu-marka batek erlazio sintaktiko-semanticoko diferentzia bidera ditzakeela eta erlazio jakin bat, oster, kasu-marka diferenteen bidez gauzatu daitekeela.

5. Azkarate eta Altuna hizkuntzalari gipuzkoarren arabera, Schuchardten etimologia hori gainerako gramatikariek ontzat eman dute, Mitxelenaz gain, Irigoien eta Traskek ere (Altuna eta Azkarate 2001 : 106). Santaziliak, berriz, Joannes Etcheberry Ziburukoak ere erabiltzen zuela

gaineratu, eta Lafon, Mitxelena edo Trasken autoritatea gogoan, Schuchardten etimologia hori euskalari guztiek onartu dutela azpimarratzen du (*apud* Martínez-Areta 2013 : 270).

6. Egia da izen konposatuetan jatorrizko hitzen higadura txikiagoa izaten ohi dela. Bestetik, *Orotariko Euskal Hiztegia* kontsultatuz gero, izen elkartu honetan jatorrizko *kide* hitzaren zenbait aldaera suma ditzakegu, hala nola *-kida* (Añibarro) edo *-kire* forma (nahiko arrunta XVII. mendetik aurrera).

7. Badirudi ez dagoela guztiz argi zergatik mantentzen den hobeto amaierako sudurkaria Europako mendebaldean. Amaierako *-s* txistukariari dagokionez, Iberiako erromantzeetan eta sardinieraz hobeto mantentzea fonetika sintaktikoarekin zerikusia duten faktoreetan bilatu beharko genuke Väänänen ustez, baina beste hipotesi batzuk proposatu dira “hay dificultad para confirmar la hipótesis que atribuye la conservación de la *-s* en Occidente a la influencia de las escuelas y al uso literario” (1968 : 119). Ez genuke baztertu beharko euskaldunek latinaren eta erromantzeen morfosintaxiaz izan zezaketen pertzepzioa, eta horrek euskarako formetan zukeen eragina.

8. Traskek, *-ki* kasu-marka berriagozat jota, instrumentalaren eta sozietiboaren antzekotasunak aipatzen ditu eta jatorri komuna proposatu, “it is possible that instrumental *-z* once included the comitative among its functions, or even as its main function; the development of comitatives into instrumentals is a very familiar phenomenon in languages” (1997: 202).

9. Joseba Lakarra irakasleari eskerrak eman nahi dizkiogu 2017an artikulua honen lehen bertsioa irakurri zuenean gogorarazteagatik mendebaldeko euskararen batez ere erabiltzen den *oste* hitz askea ere, postposizio gisa erabiltzen dena eta *Urioste* bezalako toponimoak ematen dizkiguna, latinezko *post* preposiziotik iritsi bide zaigula (*cf.* Mitxelena 1985 [1961]: 251). Euskarak jaso bide duen preposizio horretan bitxia da horzkaria mantentzea, hizkuntza erromantzeetan ez baita halakorik gertatu; Väänänenek adierazten duenez, “las palabras monosilábicas accesorias sufren la influencia del sandhi. De *pos(t)* no sobrevivió más que la forma reducida” (1968: 120). Italiaraz *poi*, errumanieraz *apoi*, proventzeraz eta portugaleraz *pos* eta gaztelaniaz *pues* eman du.

10. Badira, nolnahi ere, *Zarautzera* bezalako formak ere, aditzera ematen digutenak atzizkia *-ra* dela. Traskek aipatzen dituen *Zarautza* edo *hona* bezalako formak testuinguru kontserbatzaile batean ematen dira, leku izenek forma arkaikoak gordetzeko joera baitute; nolnahi ere **-rada* > *-rat* proposatzen du atzizkiaren jatorria azaltzeko, zubererazko *-lat*, *-alat*, (*-ialat*, *-ilat*), berriz, forma sekundarioak kontsideratzen dituelarik, **-lada* amaieratik etorriko lirake. Proposaturiko **da* morfemaren jatorria misterioa zela iruditzen zitzaion (Trask 1997: 258-260). Lakarraren ustez, **daz* hasten den morfema bat ezin da antzinakoa izan. De Rijk euskalariak, aldiz, jatorrian *-L* fortisa legokeela uste zuelarik, **(g)aLa* bukaera proposatu zuen (*cf.* Santazilia 2013: 257). Euskaraz, beste hizkuntza batzuetan legez, *l/r/d* alternantziak (*cf.* goragoko 6. oin-oharrear aipatu dugun *adiskide/adiskire*), soinuen artikulazio puntuaren gertutasunean oinarria dutenak, sarri ematen direla gogoan baldin badugu, alomorfoetan ez litzateke derrigor bilatu beharko denboran zehar gertatu den aldaketa fonetiko baten erregulartasuna. Kontuan izan behar da, halaber, badela beste morfema adberbial bat, *-la* alegia, eta hark erakarpen indarra izan zezakeela.

11. Latinezko ablatibozko formak, bizkaierako ablatibo zaharrak legez, “nondik zehar” adieraz zezakeen arren, zaila da latinez egiten zen diferentziazioa euskaraz jaso zela baieztatzea.

12. Agian, bitxikeria gisa, aipa genezake erromantzean *ad* forma berandura arte mantendu zelako adibiderik aurki genezakeela, ikus bedi adibidez XI. mendean Yyehudá ha-Leví judu tuterarraren jarcha batean honako neurtitz hau: *ad ob l'irey demandare?*; hau da, “nora joango natzaio bila?” (*apud* Mata Induráin 2003: 41). Hala ere, idatzizko testuak herriaren hizkeratik aldentzen direla gogoan izateaz gain, hor kontuan izan beharko genuke Bibliako hebraieraz *ad* preposizioa erabiltzen dela, balio tenporala duelarik (*cf.* Heine eta Kuteva 2001: 298).

13. Hala ere badago halako formak berrinterpretazio baten ondorio direla dioenik, Jacobsenek adibidez hori pentsatzen zuen (*cf.* Santazilia 2013: 252).

14. Agian bokal bat galdu izana eskatzen duelako. Trasketik zahartzat zeukan, seguruenik, aditzean isla duten kasu gramatikalek bezala, subjektu-objektu harreman sintaktikoetan parte hartzen duela uste zuelako (1997: 201). Alabaina, *Pelloz egina* bezalako egiturek erromantzeko kalkoak dirudite, eta ez daude hizkuntzan hedatuuegiak.

15. Mitxelenak uste zuen *-i(t)z* atzizkia produktiboa izan zela duela gutxi arte (cf. Salaberri 2011: 144).

16. Kasu-marken nukleoan zer dagoen ez dago guztiz argi. Heinerentzat, aditzean isla duten subjektu-objektu erlazio sintaktikoak bideratzen dituzten kasuak leudeke nukleoan; hau da, subjektu iragankorra, subjektu iragangaitza eta objektua bideratzen dutenak. Datiboa periferikotzat jotzen du (Heine *apud* Malchukov 2009: 458). Bistan da irizpide horren arabera euskaraz datiboa ez dela periferikoa, eta agian nukleoan sartu beharko litzateke ere adizki jokatuabeetan objektuaren lekuan joan daitekeen genitiboa.

17. Egun, badirudi forma arruntenak *honexetati(k)* edo *honetati(k)xe* direla (cf. Euskaltzaindia 1991: 90).

18. *T* horzkari ahostuna edo ahoskabea izango litzateke. Zalantza dugu, alomorfoak gertatzen direnean, ahostuna duen formak zaharrena izan behar duela dioen Trasken legeak aplikazioa izan dezakeen morfema guztiakin. Kontuan izan behar da morfemek ez dutela beti leku berean sorrera izango eta hitzaren leku batetik bestera alda daitezkeela. Bestetik, hizkuntzaren historian zehar faktore “disruptore” zenbaitek forman eragina izan dezakete.

19. Lafonen analisisian badirudi zenbait gauza ez direla guztiz zuzenak. Lehenik, *apal* erortzen perpausuan *apal* ez da derrigor atributiboa; hitzaren ohiko kategoria gramatikala adjektiboa den arren, *erori* aditzaren alboan eta esaldiaren testuinguruan adberbioa izan daiteke. Nahiz eta *-ki* bezalako ohiko eratorpen-atzizki adberbialik ez eroan atxikirik, testuinguru horretan, erortzeko modua adieraz dezake; *apalki* edo *apal geratu arte* adberbio sintagma jar ditzakegu haren lekuan arazorik gabe, baina *apal geratu arte* adberbio sintagma horretan ageri denez, egia da subjektu eliptikoaren nolakotasuna ere adieraz dezakeela aldi berean. Lafonek bere hipotesia funtsatzeko darabilen *goiti miriegiten* perpausuan ere, aditza baizik ez bagenu kontuan hartuko, beharbada *goiti* izentzat joenezake, hau da, “goralde”-tzat jo. Egia da, izena izatekotan, normalena izen sintagma artikuluduna agertzea izango litzatekeela -hau da, *goitia miriegiten-*, edo aditzaren erregimenaren arabera, beharbada, egun euskaldunok orokorrean *goitiari* datiboduna erabiliko genukeela. Izan liteke, halaber, adizlaguna, “gora” adierarekin. Iruditzen zait nekez uler daitezkeela egungo “goizale” adierarekin, baina beharbada bai “goitiar” izenlagunaren adiera duen adjektibo -edo adberbio- gisa. Lafonek bere argudiaketa funtsatzeko erabiltzen dituen Oihenarten itzulpenetan, *-ti* daroaten hitzen itzulpenetan ez da sumatzen egun *-zale* atzizkia ezarriko geniekeen adjektiboan adierarik -adibidez, *oheti* baino, gaur egun *ohetzale* esango genuke seguruenik-. Iruditzen zaigu Oihenarten itzulpenetan, *-ti* daroaten hitzak adjektibo gisa itzultzen direnean, izenlagun funtzioa dutela, edo erlatibozkotzat ere jo genitzake -itzulpen batean, izan ere, frantsesezko ordainean erlatibozko egitura baten bitartez itzuli zuen Oihenartek euskarazko esaretako bat-. Gaur egun ere uste dugu zilegi dela *Bilbora bidean ikusi dut* bezalako esaldi bat, esaldi hori bera *Bilborako bidean* edo *Bilbora daroan bidean* gisa eman daitezkeelarik. Esango genuke Lafonek esaldiak interpretatzeko zuen arazoa dela, batetik, -agian, garai hartako- zientziaren espirituaren eta moldeen arabera, itzulpenak unibokoak direla pentsatzea, bestetik, kategoria gramatikaren nozio zurrunezia izanik, hitz batek perpaus baten ingurumenean kategoria bakarra izan behar duela pentsatzea. Beharbada txikikeriak baizik ez diren xehetasun hauekin amaitzeko, Oihenarten itzulpenak ikusita, Lafonek latinezko *ibant nocturni* bezalako egiturak gogora dakartzan arren, agian euskarazko egiturarekin antza handiagoa lukete gerundibo gehi datiboko *Cupidus vivendi urbem* edo *ars navigandi* bezalakoek. Aipagarria da Errenazimentu garaian latinetik itzulpenak zirela medio egitura horiek ingelesean eta nederlanderan izan zuten eragina (cf. Fischer 2000: 242-243). Zehaztasun horiek, edozelan ere, ez dute euskarari girondarraren analisisa baliogabetzen.

20. Horrela, *handi* adjektiboa, **han-di* segmentatzen baldin bazen, beharbada partizipio funtzioa bete zezakeen. Lakarrak, Lafonen hipotesia onartuz, esan nahi baita ablatibo-prosekutibo kasu-markaren jatorria *-ti* deribazionala dela ontzat emanik, atzizki hori “etorri” adiera duen **din* erroarekin harremanean ipini du (cf. Santazilia 2013: 265). Horrela, erlazonaturik egongo litzateke *urdin*, *berdin* edo *gordin* bezalakoekin.

21. Altuna eta Azkaratek azpimarratu zutenez, Oihenartek *sacuti bihia* daroan atsotitza “le grain DE dedans le sac” bihurtzen duelarik, “Jakina da *de* preposizioak bi balio dituela: 'nondik' eta 'nora’” (2001: 131). Latinak eta erromantzeek datiboaren norabidean eragin behar izan dute garai diferenteetan. Euskararen datiboan eragina izango zuen, beharbada, toponimian ageri den *-ani* genitiboak, esanahian interferentzia sortuz. Ezin ahaztu latinezko datiboa ere sarritan euskararena bezalako dela, adibidez, *urbi et orbi*, “hiriari/rentzat eta munduari/rentzat” adierarekin, edo norabidezko adieraz gain, datibo etikoak ere euskarazkoarekin antza du. Geroago, erromantzezko *a* preposizioak ere sortuko zituen interferentziak garai diferenteetan.

22. Kontuan izan behar dugu, bestalde, bizkaiera zaharrean *-rean* ablatiboak adierazten zuela abiapuntua, eta *-ti* prosekutiboa zela, hau da, egungo “nondik zehar” adieraziko luke.

23. Interesgarria dateke aztertzea gorago ikusi dugun datiboak, izenlagun gisa *-EGLUK* egun izenlagun gisa erabiltzea gaitzesten duen arren (cf. Euskaltzaindia 1991: 233)-, zer harreman duen izenlagun-erlatibozko atzizkiekin, hau da *-ko* atzizkiarekin *-bai* lokatibozkoarekin nahiz deribazionalarekin- eta *-en* atzizkiarekin *-genitibozkoarekin* nahiz erlatibozko perpausak osatzeko balio duenarekin-. Hizkuntzaren osotasunaren irudi bat jasoko genuke.

24. Badira, azken bokala galdurik, hitza dardarkariarekin amaitzen duten hitzen bestelako adibiderik: Azkueren eta Trasken iritziz behe-nafarrerazko, erronkariarazko eta zubererazko datibo pluralaren *-er* forma **-eri* formatik datorke (Azkue 1969 [1923-25]: 489§ eta Trask 1997: 201); toponimian ere, Erromantzatuan, *Lumbier* edo *Xabier* bezalako forma apokopatuak dauzkagu. Baliteke ekialdean erromantzeetako joera hori euskarara hedatzea; *Laxalt* bezalako antroponimoetara hedatu dela argi dago.

25. RAEren hiztegiko definizioaren arabera: “realidad entendida como proceso o cambio continuo”.

26. Adierazgarria da, azken adibide gisa, izenek osatzen dituzten postposizioetan erromantzezko preposizioak nola integratzen diren euskaraz; esate baterako, gaztelaniazko *a causa de la razón* bezalako egitura batek euskaraz alderantziz simetrikoa den motibatibozko *arrazoi + a + (ren) + ga(i) + ti(k)* ematen du.

27. Berriki argitaraturiko artikulu batean biltzen ditu Lakarrak (2013) aditz flexioan isla duten zenbait kasu marka. Bat egiten dugu artikularen amaieran egiten den hausnarketarekin. Berreraiketa historikoak hizkuntzaren zenbait eremutan espekulazio edo ziurgabetasun maila bat eskatzen du halabeharrez, hizkuntzaren eboluzioaren ulermenean aurrera egin nahi badugu.

28. Trasken Tovarren teoriari egin zion kritikak ez dirudi guztiz bidezkoa. Bi morfemen arteko diferentziak elkarketa egiteko oztopo gaindiezintzat jo zituen, baina morfema bataren eta bestearen arteko diferentzia eta berdintasunak ikusita, azken balorazioa ebidentzietatik aldutzen dela ematen du. Badirudi diferentzia morfosintaktikoak apur bat puztu egiten dituela (egia esan, euskaraz eratorpen-atzizkitzat jo den *-ko* horretatik kasu-markara dagoen aldea ez da handiegia, adibidez, konparatu honako esaldi hauek: *gaurko lanak astunak dira*, batetik, eta *lanak gaurko dira*, bestetik; Haspelmathek eratorpen-atzizkiak kasu-marketatik bereizteko ematen dituen parametroak gogoan *-syntaxian* eragina izatea, oinarrian zegoen kontzeptu bera mantentzea, esanahi abstraktua izatea, etab. (cf. 2010: 89)- talde berekoak direla esatea doiago dirudi). Gainera, Trasken ontzat hartzen du Lafonek *-ti* morfemari buruz egiten duen berreraikipena, eta badirudi ez duela gogoan Lafonek *-ko* morfema bera jatorriz deribatiboa zela kontsideratzen zuela *-Lafonen* hitzetan, “passage de suffixes dérivatifs dans le système des suffixes casuels” gertatu zen, deklinabidean gero sartuko litzatekeelarik (1999 [1948]: 207). Bestetik, hasieran Tovarrek begirune berezia merezi duen arren, “His case is interesting enough

to merit some discussion” (1997: 373), amaieran, aldiz, ikerketa serioak egin ez dituzten ikerlarien zaku berean sartzen duela ematen du, praktikan beraien arrimuan ezartzen duenean bederen.

29. Euskaraz bezala, hungarieraz ez dago beti adostasunik kasuak zehazki zer elementuk osatzen dituzten. Lóránd Eötvös unibertsitatean Hungarieraren Historia eta Dialektologiaren katedraduna den Korompay andereak, XIV. mendearen amaieratik XVI. mendearen hasierarako aldia hartzen duen ikuspegi sinkroniko batetik, inesiboaren marka *-ban/-ben* dela kontsideratu du. Azpian bi marka direla azpimarratzen du, hala ere (cf. 1984: 135-140).

30. Nahiko argi dago *-toi* atzizkia erromantzetik igarotzean lehen bokala diptongatu zela, atzizkia zein arbola edo landareri dagokion antzematea zaila da ordea. Mitxelelenak *-dui* forma bigarren mailakotzat zeukan, “Todo indica pues que *-di* procede de *-doi*, *-dui*, que a su vez, a juzgar por la posición del acento en ronc. y sul., vendrán de un más antiguo *-do.i*, bísilabo, acaso con consonante intermedia” (1985: 108).

31. Normalean taldeak osatzeko eta lekuak adierazteko balio duen *-aga* atzizkiak ere ez du beti zentzu plural hori; Salaberrik (2011) adierazten duenez, badira *Haritzbakoitzaga* edo *Gizaburuaga* bezalako toponimoak.

32. Atentzioa ematen du Mitxelenak zergatik ez ote zuen bere herrialdearen izenaren etimologia argitzeko saiakerarik egin. Toponimian ageri den *giputz* terminoak, dirudienez, landareekin zerikusia du. *Orotariko Euskal Hiztegia*n agertzen den adieretako batek arto-kirtenarekin jartzen du harremanean, “Se da este nombre [*kiputz*] a las mazorcas de maíz que no han formado el grano o han formado muy pocos granos”; hau da, zurtoina baizik ez duen landarea dela uler daiteke. Dirudienez, Mitxelena ez zegoen prest lurralde historikoen arteko txantxei erregaia emateko; osterantzean, doktorego tesian jorratu zuen euskararen fonetika historikoaren premisak jarraituz, *giputz* hitza entzunda berehala otu beharko litzaioke atzean jatorri latindarreko termino bat dagoela. Latinezko hiztegiara jotzen baldin badugu, hor aurkituko dugu *cippus* latindarrak lehen adieran hilerriak mugatzeko balio duten zutabea esan nahi duela eta, zentzu orokorrago batean, edozelako taketa adierazteko balio duela. Latinez terminoak duen adiera orokorretik abiatuta, badirudi euskarazko ordaina gertu dagoela. Alderdi fonetikoari dagokionez, latinezko hitz hasierako herskari belar ahoskabea ahostun bilakatzen da *-lurraldearen* eta *-lurraldeko* bizidunen izenean, lehen lekukotasunetan, alternantzia dago ahoskabearen eta forma apokopatuaren artean-. Bokal arteko herskari ezpainkari ahoskabea, berriz, ahoskabe mantentzen da. Badirudi latineko kontsonante geminatua, sinpletu ere egin zitekeela (cf. Niedermann 1959: 113). Bukaerako txistukariari dagokionez, amaierako kokagunean fortizioa ematen da; hau da, hitz amaierako igurzari apikari ahoskabea hitz bukaeran eta bokal aurrean afrikatu hobikari lepokari ahoskabea bilakatzen da eta, kontsonantea baino lehen, igurzari hobikari lepokari ahoskabea, latinetik lehen maileguetan gertatzen den bezala (cf. *gorputz* < lat. *corpus*). Hitzaren azentuari dagokionez, latineko jatorria izan dezakeen *bortitz* hitzaren bide bera jarrai zezakeela pentsa dezakegu. Arrazoizko hipotesia da; eta arrazoizkoa da, halaber, *giputzek* osatzen duten taldetik sortzea leku-genitiboa duen toponimoa. Hala ere, konpara ditzakegu Ganekogorta mendiarren alboko tontor batek duen izena, *Giputzeta*, eta Aralar aldean, Elgea mendikatean edo Aiako Harrian dauden *Hirumugarrieta* izeneko lekuak.

33. Mitxelenaren ustez, atzizkia *-ka* zen, aurretik duen bokala erroarena delakoan (cf. Salaberri 2011: 150). Toponimoen lekukotzaren arabera euskara mintzatu dela pentsa genezakeen *-lurraldean* badira atzizki hori izan dezaketen leku-izenak, *Lesakatik* hasi eta *Jaka* edo *Huescara*. Esango genuke banaketa osagarrian egon daitekeela Okzitanian hedaturik dagoen *-ac* bukaerako toponimoa. Gaskoinian ere adibide ugari topa genitzake, ospetsuena, *Armagnac*. Bukaera hori azaltzeko, zelterako **-akos* latinera *-acus* gisa pasa zela pentsatu izan da *-berez*, latinezko eratorpen-morfemak *-icus* eta *-cus* baizik ez dira-, baina, forma apokopatua izanik, zaila da toponimoaren amaierako bokala zein zen esatea. Euskal lurraldetik kanpo, Salaberrik

gogorarazten duenez, latinezko *-ica* atzizkiak Tarasconetik gertu beste *Guernica* bat eman du (2011: 149).

INDEX

Thèmes : linguistique

AUTEUR

HARITZ MONREAL ZARRAONANDIA

Euskal Herriko Unibertsitatea

haritz.monreal@ehu.eus